

SANDRA GOMEZ, ABIADURA ETA KEMENA

Sandra Gomezek Dakar rallya amaitu du.
Bera izan da motoetan parte hartu duen emakume bakarra.
Horrela, beste lorpen bat gehitu dio bere palmarek oparoari.
Madrildarra jaiotzez, gaur egun Atxondon bizi da. / 2-3

Sandra Gomez Dakar Rallyan.

Emakume batek eraso jasan du paseatzen zebilela

DAFAk publiko egin duenez, emakume bati eraso egin zioten Durangon, paseatzen zebilela. Emakumeak Ertzaintzaren aldetik jaso duen erantzuna kritikatu du antolakunde feministak. "Hau ez da gertakari isolatu bat; askotan gertatzen da", salatu du DAFAk. / 5

Errime elkarteak jaiotzen da lurretan, euskararen erabilera bultzatzeko eta hizkuntza politiketan eragiteko / 11



SAN BLAS JAIK / 13-18

DURANGO MATRIKULA LIBREA ZABALIK
Otsailaren 3tik 10era
36,18€

HIZKUNTZA
ESKOLA OFIZIALA

Informazio gehiago:
ealdurangoheo@hezkuntza.net
94 620 33 42 - 94 681 66 45

Zubiurrea Kalea, 1, 48200 Durango - 015064aa@hezkuntza.net



Sandra Gomezek hirugarrenez parte hartu du Dakar rallyan.

"Moto sektorean emakumeekiko konfiantza falta dagoela uste dut"

SANDRA GOMEZ CANTERO MOTO GIDARIA

Sandra Gomezek Dakar rallya amaitu du. 137 parte hartzaileetatik bera izan da emakume bakarra. Madrilgo Cercedilla herrikoa jaiotzez, gaur egun Atxondon bizi da



Aurten Fantic taldeak eskaini dio Dakar rallyan aritzeko aukera.

Joseba Derteano ATXONDO

Sandra Gomezek gazte gaztetatik izan du motoa bidelagun. Bere ibilbidean makina bat txapelketa irabazi du: Superenduroko munduko txapelketa 2016an, Hardendurokoa 2020an eta 2021ean, Nazioen arteko txapelketa zazpi bider eta moto elektrikoaren munduko txapelketa behin, bestek beste. Baina lorpenik entzutetsuenak Dakar rallyak ekarri dizkio. 2022tik hona hiru bider parte hartu du. 2022an 62. amaitu zuen; 2023an ezin izan zuen amaitu, arazo mekanikoengaitik; eta iaz

"DAKARRA EZ DA AMAITZEN ETXERA HELTZEAN. EGUNAK EMATEN DITUT AMESTEN MOTOAN NOALA"

ez zuen parte hartzeko aukerarik izan. Aurten, Fantic talde italiarraz, bera izan da motoetan parte hartu duen emakume bakarra, eta 43. tokian amaitu du. **Aurtengo Dakar rallya aspaldiko urteetako gogorrena izan dela diote. Zu ere uste berekoa zara?**

Nik parte hartu dudana gogorrena izan da, behinik behin. Harea espero genuen baino bigunago zegoen, eta, gainera, oso lasterketa teknikoak izan da. Ibilbidea urterik urtera teknikoagoa da, profesionaleri begirakoa amateurrentzakoa baino gehiago. Beharbada horregaitik, ohikoa baino Dakar geldoagoa izan da. Batez besteko denborari begiratuta, Dakar bat eta erdi egitearen parekoa da. Fisikoki exigentea izan da. Niri gustatu zait.

Gustura geratu zara zure errendimenduagaz?

Bai, pozik nago. Etxeko lanak eginda joan naiz. Dakarren gidatu dudana antzeko moto batez entrenatu naiz eta moto-kros asko egin dut ondo prestatzeko. Dakarra lasai hartu nuen. Egunetik egunera hobeto sentitu naiz. Apurka motoa nire gustura egokitzen joan gara. Dakarra oso rally luzea da, kilometro asko dira 14 egunetan, eta hasieratik ziztu bizian irtenda istripua izateko arriskua dago. Talde osoak lan ona egin duela uste dut.

Zeintzuk dira Dakar rallya lehiatzeko pilotu batek behar dituen dohainak?

Teknika, indar mentala, jakintza mekanika kontuetan... gaitasun asko dira. Gaur egun, esperientzia handirik bako gazteak dabilza Dakarren, baina nire belaunaldiko pilotuentzat Dakarra ez zen lehenengo helburu bat, bide baten amaierako helmuga baino. Esperientzia eta heldutasuna eskatzen dituen lasterketa dela uste dut. **Dakarren dena ez dago pilotuaren esku: erorikoak, arazo mekanikoak... izan duzu horrelakorik?**

Kanpo faktoreen aldetik, Dakar lasaia izan da. Motoa zaintzen asmatu dudala uste dut. Behin, motelgailua apurtu eta bera barik egin nuen etapa bat. Beste behin, eskulekua okertu eta halaxe amaitu behar izan nuen etapa. Baina,

tira, Dakar baten barruan horiek txikikeriak dira. Eta erorikoak izan ditut, baina ez dira larriak izan eta normal jarraitu ahal izan dut.

Zelan gogoratzen duzu 2022ko Dakarra, zure estreinaldia izan zena? Ikaragarria izan zen. Sekula beteko ez dela uste eta apur bat alboratuta duzun amets bat errealitate bihurtu zitzaidan. Amaitu nuenean emozio asko pilatu zitzaizkidan.

Aurten 137 parte hartzaile izan dira motoetan, eta zeu zara emakume bakarra. Zergaitik desoreka hori?

Motoen sektorean, emakumeekiko konfiantza falta dagoela esango nuke. Ate joka ibili naizenetan, sarritan sentitu dut hori. Baina borrokalaria naiz. Hainbeste urteren ondoren, ez dut sinesten emakumeek saltzen ez duten aitzakia hori. Bestalde, aukerak falta ditugu, bai, baina ez da etsi behar. Kirolaria izatea eta horretarako bizitzia gogorra da. Bakoitzak bere partetik ipinita, ea aurtengoa den motoetan emakume bakarra egon den azkenengo aldia.

Trail eta endurotik rallyetara alde handia dago?

Trialak asko lagundu dit. Triala probatu barik ez nintzen Hard Enduroko munduko txapelketa izango, hori seguru. Aldi berean, Hard Enduroko eta moto-krosko esperientzia izan barik, ez nuen Dakar rallya hain ondo egingo. Bata bestearen osagarri dira.

Zenbat kostatzen da Dakar rallyaren exigentziatik errekuperatzea?

Asko. Dakarra ez da amaitzen etxera heltzean. Egunk ematen dituzu moto gainean zoazela ametsetan, egun asko eman dituzulako motoan. Lo orduak tentsioan pasatzen dituzu, oraindino lasterketa amaitu ez bazenu lez. Goizeko bostetan jaikitzen zara egun askotan, ordu-tegi hori barneratuta duzulako. Dakarrak errekuperazio motelak du. Mentalki oso proba gogorra da eta hori ordaindu egiten da gerora ere.

Egongo zara 2026ko Dakarren?

Ondo egongo litzateke. Gura nuke. Ikusiko dugu, bagabiltza lanean horretarako.

Zer asmo duzu urte honi begira?

Hard Enduroan onena izaten jarraitu gura dut. Gainera, Austriako Red Bull Erzbergrodeo proban parte hartuko dut ekainean. Emakume batek sekula ere ez du amaitu lasterketa hori.

Atxondora bueltan, espero bako omenaldia jaso zuen

Dakar rallytik bueltan, bizileku duen Atxondora heldu zenean, bere lagun eta ingurukoak zain izan zituen omenaldia egiteko. "Hunkigarria izan zen. Ez nuen halakorik itxaroten. Benetan esker oneko nago", adierazi du moto gidari txapel-dunak

J.D. ATXONDO

Sandra Gomezek makina bat txapelketa garrantzitsu irabazi du bere ibilbide oparoan, baina Dakar rallyak duen oihartzunak ez du parekorik. Horregaitik, bere lorpena ez da oharkabean igaro. Lasterketatik bueltan, omenaldi bat baino gehiago jaso du. Cercedillan, bere sorterrian, egin ziotena espero zuela dio, baina Apatan jasotakoa "sorpresa" izan zen. "Ezusteke ederra izan zen. Ez nuen halakorik espero. Baditut lagunak hemen, baina ez daramat hainbeste denbora hemen bizitzen. Hunkigarria izan zen. Hemen tradizioa den moduan *Agurra* dantzatu izana

ohore bat izan zen niretzat. Bena-benetan esker oneko nago", adierazi du.

Joan zen eguenean egin zioten omenaldia, Dakar rallytik bueltan zekarren furgonetan Apatara heldu zen uenean. Bertaratu-takoek txalo artean hartu zuten. Besarkaden eta zorion mezuen ondoren, *Agurra* dantzatu eta 'Sandra Gomez, txapelduna' dioen txapela erregalatu zioten. Ondoren, denek elkarregaz familia argazki bat atera zuten.

"Atxondo etxe sentitzen dut"

Atxondo ez da bere sorterria, baina bere "etxe" sentitzen du orain, "oso ondo" hartu dute-

lako. "Eskerrak ematen dizkiet denei. Asko zaintzen naute eta asko errazten didate bizitza", adierazi du moto gidari txapel-dunak.

Gainera, Gomezek antzekotasun bat baino gehiago aurkitzen die Atxondori eta Cercedillari. Biak herri txikiak dira eta mendien magalean daude, naturagaz kontaktuan. "Paradisua" iruditzen zaizkio. Atxondotik gustatzen zaion beste elementu bat baserriak dira. Gaur egun Apatako herri-gunean bizi da, baina egunen batean hango baserriren batean bizitzea gustatuko litzaiokeela onartu du.



Denek elkarregaz ateratako familia argazkia.



'Agurra' dantzatu zioten.



Gomez, erregalatu zioten txapelagaz.

Pertsona nagusientzako akonpainamendu programa



94 623 25 22 / enplegua@dma.eus
Durangoko Elkartegira hurbildu

Nori dago zuzenduta?

Konpainiaren beharra sentitzen baduzu eta harreman sozialak eta personalak sendotu nahi badituzu, hurbildu zaitez.

Zertan datza?

Astean bi edo hiru bisita izango dituzu erreferentziako pertsona batekin. Zure udalerrri/etxera joango da, eta hainbat jarduera egin ahalko dituzu: hitz egin, paseatu, kartetan jolastu, erosketak egin...

Non emango da zerbitzua?

Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar.



Adostasuna Durangoko gurasoen eskaeran

Durangoko guraso talde bat udaleko osoko bilkurara joan da asteon, ordezkari politikoei Landako Guneko jolaslekuari buruzko proposamen bat helaraztera. Zerbitzuaren egutegia handitzea eskatu dute. Udaltzak aho batez onartu du eskaera adierazpena

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko guraso talde bat udaleko osoko bilkurara joan da asteon, ordezkari politikoei Landako Guneko jolasguneagaz loturiko proposamena helarazteko. Nerea Elexpe durangarrak berba hartu zuen, Durangoko Gurasoak plataformak sinatutako idatzia eskuetan, eta honako kezka hau adierazi zien: "Eguraldiak laguntzen ez duen egunetan, udalerrian ez daukagu umeekin batera kalean babesean egoteko azpiegitura egokirik". Hori dela eta, aterperako "eremu egoki, seguru eta irisgarriak topatzea" eskatu zien ordezkari politikoei, bai "familiak elkarre-



Durangoko Gurasoak plataformako kideek berba hartu zuten plenoan.

gaz batu daitezten", eta baita "jaioberriei bularra emateko aukera izan dezaten" ere.

Alde horretatik, Durangoko Gurasoek Landako Guneko jolas eremuan egin zuten azpimarra: "[Hango] jolas eremua urriaren letik maiatzaren 31ra arte zabalik egotea proposatzen dugu", eskatu zuten (gaur gaurkoz, udalaren aurreikuspenen arabera, zerbitzua urtarrilaren 18tik otsailaren 9ra eta martxoaren 14tik apirilaren 27ra egongo da erabilgarri). "Ulegarria da azpiegitura beste hainbat ekitaldigaz partekatzea, baina eraikina bere osotasunean erabiltzen ez denean, jolas eremuak erabilgarri egon beharko lukeelakoan gaude", azaldu zuen Elexpek. Bestalde, Landako Gunean azpiegitura osoa hartzen duen ekitaldiren bat dagoenean, aterperako alternatibak topatzera gonbidatu zuten udala.

Durangoko ordezkari politikoz guztiek onartu dute eskaria, aho batez: bost alderdi politikoei eta 21 ordezkariak. Era berean, gobernu taldeak arazoari konponbidea emateko "konpromisoa hartu" du.

Abesti feministarik onena aukeratzeko lehiaketa, martxan

E.H. DURANGO

Dagoeneko zabalik dago kantu feministen lehiaketara proposamenak aurkezteko epea. Parte hartzaile bakoitzak abesti bi aurkeztu ahal izango ditu asko jota, denera 10 minutukoak. Era berean, lehiakideek letra eta grabazioa bidali beharko dituzte, azken hori Youtubeko lotura bidez. Interesdunek otsailaren 14ra arteko epea dute lanak Durangoko Berdintasun Sailari helarazteko. Eskabideak udalaren egoitza elektronikoan egin behar dira. Sariak 600 euroko bina, 500 euroko bina eta 350 euroko bina izango dira, taldeka eta banaka.

Lehiaketak Martxoaren 8ko aldarrikapenak ditu testuinguru, eta artea zein gizarte-erlaketak batuko ditu. Jessica Ruiz Berdintasun zinegotziaren esanetan, "berdintasun erreala eta eraginkorra sustatzeko tresna gisa, funtsezkoa da musika espazioak bultzatzen jarraitzea".

Aurrekontuen negoziazioa eztabaida iturri atzera ere

Durangoko EAJK "aurrekontuen bertsioa desitxuratzeari" egotzi dio EH Bilduri. Kontuak abenduan onartu zituzten

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko udal aurrekontuak onartu zirenetik hilabete baino gehiago igaro den arren, haren eztabaidak pil-pilean jarraitzen du. Asteon, Durangoko EAJK "aurrekontuen negoziazioen bertsio desitxuratu" zabaltzea egotzi dio EH Bilduri. Jeltzaleek diotenez, "inoiz" ez zen egon alde bien akordiorik. "EH Bilduk adierazi du *akordio integral* bat aurkeztu zuela, konpromiso argiekin eta jarraipen bilerak barne. Errealitatea da, lehen unean, bost aurrekontu zuzen-keta eta aurreko proiektuei buruzko hainbat eskaera jasotzen zuten dokumentu bat aurkeztu zuela. Ondoren, aldizkako bilerak, PPgaz akordiorik ez egitea eta halako elementu gehigarriak jasotzen zituen proposamen zabalago bat aur-

keztu zuen", azaldu dute Uri Buru Batzarretik.

Era berean, EAJK gaineratu du berarentzat "guztiz bideragarria" zela EH Bilduren eskaera, baldin eta horrek "aurrekontuen onarpena" bazekarren. Alabaina, abstentzioa "aukeratu" zuten gero, horrek akordiorako "edozein aukera baztertu" zuela esan dute.

EH Bilduk bestelako iritzia plazaratu zuen orain hilabete. "Negoziazioak bide onean" zihozela azaldu zuten, eta gobernuak "begi onez" ikusten zituela euren proposamenak. "Hala ere, azken unean, gobernuak PPgaz akordioa egitea erabaki du, eta alderdi horretako zinegotziaren menpe jarraitu", adierazi zuten. Horrez gainera, EH Bildurenganako "blokeo politikoa luzatzea" egotzi zioten.

576 eguzki plaka ipiniko dituzte Landako Guneko teilatuan

Autokontsumoari begirako sistema bi ipiniko dituzte. Sistema bakoitzak 100 kW-ko potentzia izango du

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak Landako Guneko teilatuan 576 eguzki plaka instalatzeko lanei ekin die. Lehenengo fasean, sabaia iragazgaitz egiteko lanak egingo dituzte, asfalto-oihala aldatuko dute, eta behin lanok amaituta hasiko dira plakak ipintzen. Eguzki plakak energia sistema bitan egongo dira antolatuta. Udalak emandako datuen arabera, sistema bakoitzak 100 kilowatteko potentzia nominala sortuko du. Irazgaiztasun lanak 89.260 euroko aurrekontuagaz egingo dituzte; aurreikuspenen arabera, hiru hilabeteko epean. Gainerakoa, eguzki plakak instalatzeko guztizko aurrekontua, 421.000 eurokoa da. Edozelan ere, udalak Energiaren Euskal Erakundearen diru laguntza jasoko du sorgailuok instalatzeko, 191.000 eurokoa hain zuzen



Landako Gunea. DURANGOKO UDALA

ere. Mireia Elkoroiribe alkateak azpimarratu duenez, proiektua "aurrerapen esanguratsua" da "udal azpiegiturak etengabe hobetzeko". Era berean, jarduketa hau martxan ipinita, legealdi planean jasoriko neurrietariko bat beteko dela adierazi du.

Gune berri bat belaunaldien arteko sorkuntzarako

E.H. DURANGO

Bizenta Mogel Bibliotekak *LAB egunak* egitasmoa ipini du martxan: belaunaldien arteko sorkuntza sustatzeko ekimena. Programan, adin guztietako sorkuntza sustatu gura dute, eta belaunaldien arteko elkar-eragiletza hauspotu. Jarduera Diana Franco Eguren (Baratza Digitala) gidatuko du eta ezagutzaren esplorazioan barneratuko ditu erabiltzaileak.

Jardunaldietarako eremua hainbat arlo tematikotan banatuko dute. Hauek dira arloak: eskularen txokoa, proiektu txikien txokoa, elektronika txokoa, fabrikazio txokoa, ideien eta beharren panela, txoko librea eta autoedizioaren txokoa. Jardunaldiak hile bakoitzeko lehenengo egunean egingo dituzte, otsailtik ekainera, 17:00etatik 20:00etara. LAB Egunetan parte hartzeko ez da alde aurreko ezagutzarik behar. Udalak interesa duten pertsona guztiei dei egin die egitasmoagaz bat egitera.

Emakume bati eraso egin diotela salatu du DAFak

Antolakunde feministak salatu duenez, "gizon batek emakumeari dei egin zion, eta harengana hurbildu zenean gizona masturbatzen hasi zen emakumeari begira". Era berean, emakumeak Ertzaintzaren aldetik jaso duen erantzuna kritikatu du DAFak

Aitziber Basauri DURANGO

Orain aste batzuk gertatu zen eraso, DAFak jakinarazi duenez, egun argiz eta emakumea paseatzen zebilela: "Gizon batek emakumeari dei egin zion, eta harengana hurbildu zenean, gizona masturbatzen hasi zen emakumeari begirazegoela. Emakumeak aurre egin zion, eta *tipoak* alde egitea lortu zuen". Gerora, jende gehiago agertu zen eta biktimari babesa eman zioten, azaldu dutenez. Emakumea polizia etxera joan zen, "gertatutakoari erantzun bat eman guran eta berriro gertatu ez dadin".

Asanblada feministak kritikatu egin du emakumeak Ertzaintzaren



DAFAren mobilizazio bat Durangon.

jasotako erantzuna. "Erantzuna argia izan zen: ezin zela salaketarik ipini. Kontua da era honetako gertakariak ez direla delitutzat jotzen", adierazi zuten ohar batean.

"Ez da kasu isolatua"

DAFAk nabarmendu du ez dela gertakari "islatu" bat; "askotan" gertatzen da. "Izan ere, badakigu Durangoko polizia etxera hainbat emakume joan dela salaketa ipini eta laguntza eskatzera, eta bertatik erantzunik barik irten direla", salatu dute. "Erasoak jasan dituzten emakumeak artatzeko, Indarkeria Matxistan adituak diren langile bi egon behar dira berez Durangoko Ertzaintzaren komisarian, eta 2024ko azken hileetan ez da horrela izan. Hainbat hilez ez da zerbitzu hori eskaini", gaineratu dute. Asanblada feministak nabarmendu du egoera "oso larria" eta "arduratzekoa" dela. Azkenik, emakumeek indarkeria matxista egunerokoan jasaten dutela nabarmendu du DAFak: "Instituzioek eta legeek ez gaituzte babesten". Soluzioak eta baliabideak aldarrikatu dituzte. "Denon ardura da", azpimarratu dute.

Udan Saharako umeak harreran hartzeko familia bila

E.H. DURANGO

Río de Oro elkarteak udan ume sahararrak harreran hartzeko familia bila dabil Durangaldean; *Oporrak Bakean* programa "inoiz baino beharrezkoagoa" dela azpimarratu dute elkartetik. Hori dela eta, eskualdeko familiak deitu dituzte 8tik 12 urtera bitarteko ume errefuxiatuak denbora tarte baterako harreran hartzera. Izena emateko epea martxoaren 15era arte dago zabalik, 676 108 794 telefono zenbakian.

"Esperientzia onuragarria"

Elkarteak adierazi duenez, programa oso onuragarria da ume sahararrentzat, eremu horretako uda sasoi gogorretik urrunteko aukera eskaintzen dielako. Era berean, egonaldiak osasuna, elikadura eta ezagutza garatzeko tarte eskaintzen diela gogoratu dute. Alabaina, umeentzat bakarrik ez, harrera familientzat ere esperientzia aberasgarria izaten dela azpimarratu dute.

LABUR-LABUR

la 40.000 gaualdi

Durangoko hotelek eta ostatuek 39.881 gaualdi erregistratu zituzten 2024an, 2023an baino % 2 bisitari gehiago. Udalak azaldu duenez, udalerrria helburu turistikoa "garrantzitsu legez sendotu da Euskadin".

1.700 kirol saio

Mobidurango zerbitzuak, durangarren artean jarduerak fisikoa sustatzeko eta herritarren osasuna hobetzeko programak, 1.707 hitzordu hartu zituen iaz. 136 herritarrek Osakidetzak, fisioterapia zentroek eta tokiko kirol erakundeek bideratuta jo zuten zerbitzura.

Txartel digital berria

Durangoko kirol txartela telefonoan ere erabili daiteke orain: kirol txartela *NIK Cartera Digital* izeneko aplikazioan deskargatu daiteke. Horri eskerrak, kirol zerbitzuetako erabiltzaileek telefonoan integratuta eraman ahal izango dute txartela, kiroldegira modu erosagoan sartzeko.



ZALDIBARKO EUSKARALDIA

Euskaraldia prestatzen hasteko deia egin dute Zaldibarren

Euskaraldia, hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa erraldoia, maiatzaren 15etik 25era egingo da Euskal Herri osoan zehar. Hori dela eta, Zaldibarko herritarrek egitasmoa prestatzeko lanetan hasiko dira apurka-apurka: datorren martitzenean, bilera zabal bat egingo dute. 18:30erako ipini dute hitzordua, Liburutegi Zahararen.



MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

Otsailak 3tik 14ra



NEVERS

Bisita pertsonalizatuak urte osoan zehar

 Euzko Murrain Zaldibarko, 2
46000 Durango, Bizkaia
  neverrakastetza.com
  946 81 09 46
  @neverrakastetza

Euskararen erabilerak gora egin du Zornotzako kaleetan

Soziolinguistika Klusterrak Zornotzan egindako hizkuntza erabileraren kale neurketaren emaitzak aurkeztu dituzte; azken bost urteetan % 3,1 hazi da euskararen kale erabilera Zornotzan, eta azken urteetan galdutako presentzia

Aritz Maldonado ZORNOTZA

Euskararen kale erabilerak orain hamar urteko maila berreskuratu du Zornotzan, eta azken urteetan presentzia galdu eta gero goranzko joera duela azaldu dute datuek. Hizkuntza erabileraren kale neurketaren arabera, elkarriketen % 23,4 euskaraz ziren 2024n; 2013ko neurketan antzerako datuak jaso zituzten (% 23), baina 2019koan % 20,3koa izan zen emaitza. "Euskararen erabilera egonkorra da, baina dinamikoa aldi berean. Izan ere, haurren artean erabilera nabarmen hazi da, eta gazteen artean ere gora egin du zeozer. Bestalde, ikusten da euskararen aldeko arau sozial positibo bat dagoela belaunaldien arteko testuinguruetan, eta hori indartzea estrategia eraginkorra izan daiteke", nabarmendu du Belen Uranga Soziolinguistika Klusterreko ordezkariak. "Belaunaldiak gurutzatzean euskara gehiago erabiltzeko joera dago, horrek funtzionatzen du, eta hori oso positiboa da. Adinkideen artean



Guztira, 64 orduko behaketa egin da Zornotzako kaleetan.

ere hori egitea bultzatu behar da, buelta eman behar zaio", gehitu du.

Ainhoa Salterain Zornotzako alkatea ere pozik agertu da emaitzekin. "Hala ere, hau ez da hemen amaitzen. Eguneroko erabilera

bultzatzen jarraitu behar dugu, euskaraz berba egiten eta belaunaldi gazteenei helarazten", esan du alkateak. Kale neurketaren emaitzen txostena Zornotzako Udalaren webgunean egongo da datozen egunetan.



Ernaik Zornotzan egindako aurreko ekimen bat.

Ernaik Independentzia eguna antolatu du zapatarako Zornotzan

Gazte antolakundeak egun osoko egitaraua prestatu du; 75 herri baino gehiagotan egingo dituzte ekimenak

Aritz Maldonado ZORNOTZA

Ernai gazte antolakundeak Independentzia egunak antolatu ditu Hego Euskal Herriko 75 herritan. Zornotzan zapatu honetan egingo dute, adibidez; egun osoko egitaraua prestatu dute horretarako: besteak beste, berbaldia (12:30ean Zelaian), bazkaria (15:00etan), Elektrokutau elektrotxaranga (18:30ean) eta Iluntzean erromeria (21:00etan, Piken) egongo dira. Ernaik etorkizuneko erronkei erantzuteko baliatu gura ditu Independentzia egunak. "Alde batetik, gazteok gogoeta egin behar dugu Euskal Herriaren indepen-

dentziara bidean egin beharreko urratsez, gure rolaz hausnartzeko. Bestalde, egun hauek baliagarriak izango dira herri eta eskualdeetako gazte komunitate independentistak batzeko", azaldu du antolakundeak.

Martxoan, Elorrion

Zornotzan ez ezik, Ernaik Durangaldeko beste hainbat herritan ere egingo ditu Independentzia egunak; adibidez, Durangon, Zaldibarren eta Elorrion. Ondoren, apirilaren 17tik 20ra, Gazteon Eskutik ekimena egingo dute Berriozarren (Nafarroa).

Berrizko etxebizitza bat gizarte zerbitzuetarako erabiliko dute

Berrizko Udalak eta Durangaldeko Mankomunitateak lankidetzaren hitzarmena sinatu dute, lau urterako



Orlan Isoird Berrizko alkatea eta Idoia Otaduy Mankomunitateko presidentea.

A. M. BERRIZ

Berrizko Udalak eta Durangaldeko Mankomunitateak lankidetzaren hitzarmena sinatu dute Berrizko dagoen etxebizitza bat gizarte zerbitzuetarako erabiltzeko aldi baterako. Hitzarmena lau urterako izango da, luzatzeko aukeragaz. Gizarte larrialdiko egoeran eta gizarte-bazterkeria arriskuan daudenei laguntzeko helburua du akordioak. Erakunde bietako ordezkariak osaturiko jarraipen batzordea sortuko dute, etxebizitza "ezarritako helburuetarako bakarrik erabiliko dela jarraitzeko". Idoia Otaduy Mankomunitateko presidentea eta Orlan Isoird Berrizko alkateak erakunde bien elkarlana nabarmendu dute. Biek ala biek azpimarratu dute lanean jarraituko dutela eskualde lez koordinatua go eta kohesionatua egoteko.

Elorrion ezti dastatze tailerra egingo dute martxoaren 21ean

A. M. ELORRIO

Olio dastatze ikastaroak izan zuen arrakastaren ondoren, Elorrioko Udalak ezti dastatze ikastaroa antolatu du. Martxoaren 21ean izango da, 17:00etatik 20:00etara, Iturri kultur etxean. Hiru orduko ikastaroan, teoria eta praktika uztartuko dituzte, Iñaki Gonzalo Larraudogoitia biologo eta erlezainaren eskutik. "Erlauntzei, erleek sorturiko produktuei eta erleen gaineko bitxikeriei buruz berba egingo dute ikastaroan. Horrez gainera, zati praktikoan, lau-bost ezti mota dastatuko dituzte.

Elorrion erakusketa eta mahai-ingurua dolu perinatalaz

A. M. ELORRIO

Dolu perinatalaren gaia ikusarazteko, argazki erakusketa eta mahai-ingurua antolatu dituzte Elorrion; Esku Hutsik elkarteak antolatu ditu ekintzak, udalak gonbidatuta. Otsailaren 3tik 28ra bitartean, Nerea Garaizarren argazkiak batzen dituen erakusketa egongo da Iturri kultur etxean. Bestalde, otsailaren 18an mahai-ingurua egingo dute, 18:00etan. Hainbat gurasok sorturiko elkar-atea da Esku Hutsik, eta haurdunaldi garaian edo jaiotzan hildako haurren heriotzagaitik doluan laguntzeko helburua du.

BIZI TZEKO HEZI

KURUTZIAGA
IKASTOLA



ESKAINZA

0 urtetik 18 urtera
bitarteko hezkuntza
eskaintza.



HELBURUAK

Ikasle euskaldun,
kritiko eta
eleanitzak.



ELIKADURA

Jantoki
Eko-Arduratsuaren
ziurtagiria.
Bertokoa, ekologikoa
eta sasoikoa.



MATRIKULAZIO EPEA

Otsailaren
3tik 14ra



Euskara zelan sustatu berbagai, Izurtzako saioan

Udala euskara sustatzeko plan estrategikoa diseinatzen dabil Izurtzan. Galdetegi baten bitartez, herritarren iritzia jaso dute egoeraren diagnostikoa egiteko. Datorren martitzenean erabilera anitzeko aretoan egingo den saio irekia dute hurrengo pausoa



Izurtzako erabilera anitzeko aretoan egingo dute saio irekia.

Zahartzaroari eta zaintzari buruzko berbaldia Atxondon

Irati Mogollón hizlariak zahartzaroari buruzko kezka eta horiei aurre egiteko alternatibak plazaratuko ditu

J.D. ATXONDO

Atxondoko Berdintasun kontseilu herritarrek prest du aurten go egitaraua. Urtean zehar askotariko ekintzak egingo ditu. Lehenengoa berbaldi bat izango da, *Cuidados y vejez: Viviendas colaborativas a lo largo y ancho de Europa* izenekoa. Berbaldia otsailaren 6an izango da, 18:00etan, eskolako eraikin zaharrean.

Irati Mogollón García izango da hizlaria. Berak eta Ana Fernández Cuberok idatzitako *Arquitecturas del cuidado. Hacia un envejecimiento activista* (Txalaparta, 2019) liburuan XXI. mendeko zahartzaroaren egoerari buruz planteaturiko gaiak izango ditu berbagai. Kezka horien aurrean alternatiba kolektiboak ere plazaratuko ditu. Horrela, Europan martxan ipiniriko 19 etxebizitza



Berbaldia eskolako eraikin zaharrean da.

tza kolaboratibo eta kooperatibo baino gehiagoren errepaso egingo du Irati Mogollonek. Etxebizitza horiek 20 urte baino gehiago daramatzate bizitzeko eta zaintzari eta zahartzaroari aurre egiteko modu desberdinak planteatzen.

Berbalagunek irteera antolatu du, Arrazolan irten eta Besaidera

J.D. ATXONDO

Berbalagunek hainbat irteera antolatu du eskualdeko herrietan, euskararen mintzapraktika kalera ateratzeko. Euretari bat Atxondon izango da. Kasu honetan, Berbalagunek euskara eta natura uztartzen dituen mendi irteera zirkularra antolatu du. Otsailaren 9an izango da, 09:00etan. Arrazolako Tope tabernako ondoko aparkalekutik irtengo dira.

Ibilbideak 15,5 kilometro ditu, eta 650 metroko desnibela. Tope tabernatik Besaidera igoko dira, handik Larrabilgo Laua gurutzatuko dute eta Andastotik bueltatuko dira berriro Arrazolara. Bost ordu inguruko irteera baterako proposak diren oinetakoak eta arropa eramatea gomendatu dute antolatzaileek.

Mendi irteeran parte hartzeko, aurretik izena eman behar da. Izen ematea 639 400 786 telefonoko WhatsApp-ean egin daiteke, antolatzaileek ohar batean zehaztu dutenez.

Joseba Derteano IZURTZA

Izurtzako Udalak euskara sustatzeko plan estrategikoa diseinatzekeo prozesua hasi du. Une honetan euskararen egoeraren diagnostikoa egiten dabil. Ahalik eta azterketarik osatuena izan dadin, herritarrek diagnostikoko parte izatera gonbidatu dituzte, etxerik etxe zabalduriko galdetegi baten bitartez. Hurrengo pausoa herritarrekin saio zabal bat egitea da, baturiko informazioa landu, plangintzaren estrategiak zehaztu eta ekintza posibleak identifikatzeko. Saio ireki hori datorren aste martitzenean egingo dute, otsailak 4, 18:00etan, Izurtzako erabilera anitzeko aretoan.

Etxerik etxe banaturiko galdetegian, udalak plan berriaren arrazoiak esplikatzeko ditu. Kaleko eta etxeke erabileraren jaitziera "nabarmena" izan den arren, izurtzarren % 74k euskaraz dakitela eta herrian "hizkuntza nagusia" izaten jarraitzen duela esan dute. Hala ere, azken urteetan gizartean eta bizimodu izandako "aldaketa handiek" hizkuntzari "zuzenean" eragiten diotenez, euskara sustatzen ja-

rraitzeko konpromisoa hartu du udalak. "Erakundeok ere badugu zer egin: euskaraz egiteko aukera zabaltzea eta bultzatzea, eta erraztasuna ematea herritar eta eragileei", zehaztu dute. Diseinatzen dabilen plan berriak konpromiso horri erantzuten dio.

Galdetegiari dagokionez, besteak beste herriko euskararen erabileraren inguruan galdetu diete herritarrei, indarguneei eta ahulguneen inguruan; baita erabilera sustatzeko landu beharkeko liratekeen esparruei buruz ere. Herritarrek aste honetako eguaztenean arteko epea izan dute erantzuteko.

'Aroa' plana

Udalak *Aroa* plana hartu du oinarri Izurtzako plana egiteko. *Aroa* datorren hamarkadan euskara indarberritzen jarraitzeko Eusko Jaurlaritzak onarturiko marko estrategikoa da. Marko horren barruan, euskararen arloko planak aurrera eramateko metodologia bat landu eta udalerrietara bidali du, gero udalerrri bakoitzak bere errealitateari egokitu dezan.

Mañariko Santa Agedan batzen dena, Saharako errefuxiatuentzat

Hamadako Izarrak elkarteak Sarahako errefuxiatuei laguntzeko erabiliko du domekan baturikoa

J.D. MAÑARIA

Domeka honetan Santa Ageda koplak abestera irtengo dira Mañaritan. Ahalik eta auzo eta baserririk gehienetara joan ahal izateko, saio bi egingo dituzte. 08:30ean irtengo dira, plazatik. Eguerdian San Juanen bazkalduko dute, eta arratsaldean be-

rriro irtengo dira. Ekimenean baturikoa Saharako errefuxiatuen kanpamentura helaraziko dute, Hamadako Izarrak elkarrearen bitartez, apiril inguruan hara egingo duten bidaia batean. Iazko Santa Ageda irteeran 600 euro batu zituzten Saharako errefuxiatuei laguntzeko.



Iazko Santa Ageda irteera.

OSTALARITZA GIDA



IURRETA

GAUARGI



Dantzari, 4 behea
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

 @gauargitaberna

ZORNOTZA

XIBERU



Zezenia Gallartzagoitia, 9
Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alai eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

 Xiberu Taberna
 @xiberutaberna

DURANGO

BASA Eroateko janaria



Untzillatx, 9
Tel.: 747 421 104

Eguneko menua edonora eroateko prest, gure sukaldean bertako produktuekin prestatuatako plater gozo-gozoak. Begiratu gure instagramean.

 @basa.durango



DURANGO

OLAJAUREGI



Kurutziaga, 52
Tel.: 946 200 864

Eguerdian asteazkenetik igandera (13:00-15:30)

-Eguneko menua 19,90€

-Dastatzeko menua 45 €

-Karta

Gauean ostegunetik larunbatera

(20:00-22:30)

-Mokadu karta

**TERRAZA ZABALIK: 12:00 - 00:00

 Hotel Olajauregi

 @hotel_olajauregi_jatetxea

**anboto
kide**

Anbotokideen
txokoa

OTSAILEKO ZOKKETAK

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz. Zornotza.



Errigoraren eskutik Euskal Herriko produktuen otzara.



Goazen kontzerturako sarrerak. Zornotza Aretoa. Martxoak 1.

IRABAZLEAK

Karpin faunarako bina sarrera:

Iñaki Guridi Ormazabal
Lur Loiti Mendizabal

Euskaraldiko materiala:

Alazne Unzueta Arregui

Basa Take Away jatetxeko bonua:

Bego Arrinda Uriarte

Xiberu tabernan gosari bikoitza:

Asier Bilbao Rui Wamba

Gemma Telletxe Kortabarria

Okm:

batzen gaituen
distantzia

Egin zaitetz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Arreta integrala, Abadiñoeko egoitza berriaren oinarria

Egoitzak 60 plaza izango ditu mendekotasuna duten adinekoentzat, eta 40 plaza gaixotasun mentala duten pertsonentzat. Eguneko zentroa ere egongo da, desgaitasun intelektuala duten pertsonentzat; horientzat 25 plaza egongo dira

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Bizkaiko Foru Aldundiak asteon jakinarazi duenez, 2026 amaierarako Abadiñoen egoitza egiten hastea aurreikusten dute. Gainera, hasierako proiektua Durangaldeko egungo gizarte premietara egokitu dutela azaldu dute, "arreta integrala ematea lehenetsita". Hasieran, Aldundiaren asmoa nagusien egoitza bat eraikitzea zen, mendekotasuna duten adinekoentzat. Baina, asteon iragarri dutenez, osasun mentalaren eta desgaitasunaren eremuetan hautemandako premiei erantzuteko, gaixotasun mentala duten pertsonak eta desgaitasun intelektuala dutenak ere lekua izango dute bertan. "Ezin genituen alde batera utzi errealtate aldakorrak eta gure lurraldean sortzen diren eskaera berriak", adierazi zuen Elixabete Etxanobe Bizkaiko ahalzun nagusiak.

Bestalde, proiektu hau gauzatzeko Aldundiaren eta udalaren



Amaia Antxustegi, Mikel Urrutia, Elixabete Etxanobe eta Edurne Maguregi.

arteko elkarlana ezinbestekoa izan dela azpimarratu zuten. "Elkarlanean egiten gabiltzan lana nabarmendu gura dugu, gure herritarren beharrezan erantzungo dien zaintza eredu batean aurrera egiten jarraitze-

ko", esan zuen Edurne Maguregi zinegotziak. Bestalde, Mikel Urrutia alkateak azpimarratu zuen lanketa sakona egin dutela proiektua jaso zutenetik, irisgarritasuna hobetu eta herrigunean integratzeko asmoz.

Mallabian autobus zerbitzua ipini dute Lilatoira joateko

Otsailaren 23an 35. Lilatoia jokatu da Donostian. Mallabian autobusa ipiniko dute hara joateko

Maialen Zuazubiskar MALLABIA

Mallabian autobus zerbitzua ipiniko dute otsailaren 23an Donostian egingo den 35. Lilatoira, Emakumezkoen Lasterketa Herrikoira, joateko. Udalak sare sozialetan jakinarazi duenez, autobusa 08:30ean irtengo da herritik, eta itzulera 18:30ean izango da.

Lilatoira autobusean joateko, izena ematea ezinbestekoa izango da. Izen ematea otsailaren 14a baino lehenago egin behar da, Mallabiko Udaletxean edo Kultur Etxean.

Emakumeen lasterketa

Lilatoia emakumeak ahalduz bilatzen duen ekitaldia da, kirolaren bitartez osasuna, inklusioa eta talde lana sustatzen dituen. Ekimen hau hazten doa urtetik urtera, eta 2024an, esaterako, 6.200 emakumek parte hartu zuten.



2024ko irteera. JOSEBA PARRON - IRUTXULOKO HITZA

Errime sortu dute lurretan, euskararen erabilera sustatzeko

Jaio berri den elkarteak herriko hizkuntza politiketan eragin eta euskararen kale erabilera sustatu gura du

A.Basauri IURRETA

Herriko hizkuntza politiketan "eragitea" eta euskararen kaleko erabilera sustatzea. Helburu horiekin jaio da Errime elkarteak Iurretan. Horrek "aliantzak lor-
teza" dakarrela esan dute. "El-

karlanean aritzea, laguntzea eta baliabideak eskaintzea. Horrez gainera, euskarak jasandako zapalkuntzen aurrean ere ez gara isilik geratuko", gaineratu dute. Ezagutzaren datuek gora egin duten arren, erabilera datuak

ez direla onak esan dute Errimekoek. "Horrek agerian uzten du hainbeste maite dugun hizkuntzaren osasun makala. Lan handia dago egiteko, instituzio eta elkarteetatik hasi eta norbanako orenganaino, eta zeregin horretan eskua errime, irmo, luzatzera gatoz", adierazi dute. Gurien Bai elkarteak egindako lana azpimarratu dute: "Bidearen zati bat egin zuten, eta orain guri dagokigu indarra egitea hurrengo pausoak emateko".



Errime euskara elkarteko kideak. ERRIME

'J'accuse' kanpainara batu dira



Joan zen barikuko ekitaldian ateratako argazkia. HAMAIIKA LORE TALDEA

A.B. OTXANDIO

Hamaika Lore kultur aniztasunaren aldeko taldearen ekimenez, Otxandion 20 autoinkulpazio batu zituzten Korrikan 36 migratzaile irun (Gipuzkoa) eta Hendaia (Lapurdi) arteko muga igarotzen laguntzeagaitik auzipetutako zazpi aktibistei babesa emateko. Martxoan egindako "desobedientzia ekintza" hura bultzaturiko kolektiboek azaroan ekin zioten *J'accuse* autoinkulpazio kanpainari, eta milaka herritarrek sinatu dute.

Santa Ageda koplak berreskuratuko dituzte Garain

Ekaitz Herrera GARAI

Aurten, urte askoan lozorroan egondako ohitura zaharra berreskuratuko dute Garain: otsailaren 4an, Nagusien Elkarteko kideek deituta, herritarrak kalera irtengo dira Santa Ageda koplak abestera. Orain 45 urtera arte koplak abestera irteteko ohitura zegoen herrian, baina urteak joan urteak etorri,

usadioa galdu egin zen. Aurten, aspaldiko partez, ohitura berreskuratzea erabaki dugu", azaldu dute. Azken asteotan entseguak egiten ibili dira, eta dena prest daukate datorren martitzenerako. 20:00etan irtengo dira, plazatik. "Herrigunean zehar ibiliko gara koplak abesten. Ibilbide txiki bat egingo dugu, eta hiru bat geldiene egitea pentsatu dugu", esan dute. Gainerako herritarrak deitu dituzte baserritar jantzi eta hitzordura agertzera.

URRUN IRISTEKO, GERTU.

Zatoz eta ezagutu Andramari Zornotzako ikastola

- Orik 18 urtera arte.
- Bisita pertsonalizatuak.
- 2025/26 matrikulazioa: otsailaren 3tik 14ra.

ANDRAMARI
ZORNOTZAKO IKASTOLA

Larrea auzoa z/g 48340 Zornotza.
94 673 29 50 - zornotza@ikastola.eus
www.andramarizornotzakoikastola.eus

ANBOTO Mastodonen izango da aurrerantzean

Tokikomeko hedabideek sare sozial horretara jauzi egiteko hautua egin dute; tartean da @anboto@tkm.eus


M.Z. DURANGALDEA

ANBOTO Mastodon sare sozialean izango da aurrerantzean. Tokikomek abian ipini duen *tkm.eus* zerbitzariaren bitartez, @anboto@tkm.eus erabiltzailea martxan da. "Aspalditik gabiltza kezka-

tuta sare sozial korporatiboek hartu duten norabideagaz, eta uste dugu zeozer egiteko momentua dela", azaldu du Jone Guenetxea zuzendariak.

Bestalde, fedibertsoa sustatu eta indartu gura duen erakunde,

kolektibo eta pertsona talde batek Goazen Lagunok egitamao sortu du, eta, kanpaina horregaz bat eginez, ANBOTO Mastodonen moduko sare sozial irekietara pasatzeko gonbita egiten die jarraitzaileei. @anboto@tkm.eus jarraitu gura izanez gero, Mastodomeko kontu batetik egitea da errazena: "bilaketa kutxan gure kontua sartu, eta jarraitu. Oraindino konturik ez baduzu, euskarazko zerbitzari bi daude aukeran, *mastodon.eus* eta *mastodon.jalgi.com*".



Jarraitu @anboto@tkm.eus



POLITIKAN

JESICA RUIZ PEREZ
PSE-EE

Etxebizitza

Argi dago etxebizitza eta enplegua direla gaur egungo arazorik kezagarrienak, batez ere gazteen artean. Etxebizitzaren arloan gauza batzuk ez daude udalaren esku, baina zerbaitekin daitezke. Esaldi huts asko entzuten ditugu gai honen inguruan, baina arazoei eta hainbat kolektibori benetako konponbideak eman behar zaizkie, batez ere baliabide gutxien eta behar gehien dituztenei. Eta horretan ari da Alderdi Sozialista Durangoko udalean:

- Alokabiderek lanean ari gara 2025ean San Fauston ditugun 16 etxebizitza sozial herritarren eskura jarri ahal izateko.

- 18tik 35 urtera bitarteko gazteentzako alokairu-laguntzak hobetu ditugu. Otsailean aterako ditugu, eta alokairu kostua 850 €-ra igo dugu. Horrela, 50.000 €-ko diru laguntza eman ahal izango dugu (aurreko urteetan ez da 30.000 €-ra iritsi).

Horiez gain, beste kolektibo bat ere badago, laguntza horiek jasotzeko gutxieneko atalaseak gaintzen dituzten pertsonak, hain zuzen. Horiei ere ezinezkoa zaie etxebizitza bat izatea, prezio altua dutelako. Baina, bai, horientzat ere baditugu konponbideak, eta irtenbidea etxebizitza tasatuak dira. Laster argitaratuko ditugu etxebizitza horien lehen promoziora sartu ahal izateko oinarriak. Guk argi daukagu, guztiontzat gobernatzen dugu.

DURANGALDEA ASTEON

Sagardoyren 'Betiko gaua' Laburbira zirkuituan

DURANGALDEA LABURBIRA Euskaraz sortu eta ekoiztako film laburren zirkuitua da. Ekimena euskal zinemagintzaren erreferentzia bihurtu da urteotan, eta horren erakusle da aurtengo edizioa 35 lan aurkeztea. Horietatik zortzi lan aukeratu dituzte, eta tartean dago Eneko Sagardoy durangarraren *Betiko gaua*. Aurrestreinaldia Donostian izango da, martxoaren 6an, eta zirkuitua martxoaren 7tik apirilaren 11ra.



FACEBOOK: AMARAUN

Amaraun Arte Fabrikan lapurretan egin dute

ABADIÑO Bariku gauean Abadiñoko Amaraun Arte Fabrikan lapurretan sartu zirela salatu dute bertako arduradunek sare sozialen bitartez. "Bariku gauean lapurrak sartu ziren Amaraunera. Kolpe gogorra izan da guretzat. Ilusio guztiagaz herriarentzat sorturiko kultur espazioa da Amaraun eta ez dugu horrelakorik onartuko", azaldu dute. Horrez gainera, gertatutakoak ez dituela euren "helburuetatik urrunduko" eta "indarberrituta" jarraituko dutela esan dute.



Elorrion bizi diren bergararrak bat eginda

ELORRIO Elorrion bizi diren bergararrek hamarkada baino gehiagoko ohiturari eusten diote. San Sebastian egunaren bueltan, elkarrengaz bazkaltzeko batzen dira. 2025eko bazkaria joan zen domekan egin zuten, Elorrioko Hotelean. 30 bat lagun batu ziren bertan.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: **Bixente Kapanaga 9 - lurreta**
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrindia.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

SAN BLAS EGITARAUA 2025



San Blas
~ 2025 ~ otsailak 3
Abadiño


Abadiño
Elizateko Udala
www.abadiño.org

SAN BLAS EGITARAUA 2025

URTARRILAK 31

18:30 Umeentzako diskofesta Elkartasun Ionjan. Bitartean, pintxopotea Casamanseko lagunekin.

19:30 Hemeretzi minutuko ikus-entzunezko emanaldia Txanporta Kultur Etxean Gerediaga Elkartearen eskutik: Zer itxura zeukaten Abadiñoak eta San Blas jaiek orain dela 50 urte? (1973ko San Blas azoka iruditari).

21:00 Bertso afaria Gaztañodi elkartean, Andoni Egañagaz eta Unai Iturriagagaz. Txartelak salgai Petite liburu dendan eta Lagun Toki tabernan.

OTSAILAK 1

14:00 Elkartasun bazkaria. Txartelak salgai Zelaietako Nagusien Tabernan eta Traña-Matienako Mesoi tabernan.

20:00 Kontzertua txosnagunean: Txalainak.

22:00 Kontzertua Elkartasun Ionjan: Dj PatryKuku & Kene.

22:00 Kontzertua txosnagunean: Kaparrak Very Txarrak.

22:00 Jon Braun. Gaztetxean.

02:00 DJ Martinez. Gaztetxean

OTSAILAK 2

16:00 Walas magoaren "Osaba Patxikuren etxe zaharra" ikuskizuna.

Txanporta Kultur Etxean. Lehenengo saioa. Gonbidapenak urtarrilaren 27tik eskuragarri Errota Kultur Etxean eta Udal Mediatekan (lau gonbidapen pertsona bakoitzeko, goitik jota).

18:00 Walas magoaren "Osaba Patxikuren etxe zaharra" ikuskizuna.

Txanporta Kultur Etxean. Bigarren saioa. Gonbidapenak urtarrilaren 27tik eskuragarri Errota Kultur Etxean eta Udal Mediatekan. (Lau gonbidapen pertsona bakoitzeko, goitik jota).

OTSAILAK 3

SAN BLAS EGUNA

Azoka: Ganadua, baserriko tresnak eta makinak, ortuariak, fruta, gazta, txakolina, ogia, ezti, artisautza eta landareak. XXXII. Abelburu erakusketa eta salmenta.

10:00 Txistularien kalejira Txanbolin taldeagaz.

12:00 Bertsolariak Ferialeku plazan: Txaber Altube, Garikoitz Sarriugarte eta Bittor Altube.

12:00 Herri kirolak. Probalekuan.

17:00 Erromeria Ferialeku plazan: Muxutruk.

17:00 Kontzertua Elkartasun Ionjan: Dj Bull

17:00 DJak: Txola eta Potxola, Malakias MX3, DJ Lamikiz eta DJ Abañoiko Karmentxu, Gaztetxean.

18:00 Idi probak: Ipeñarrieta (Urretxu), Gotzon Plaza (Maruri-Jatabe) eta Iñaki Lopategi (Billela-Birle).

OTSAILAK 7

21:00 Idi probak: Julen Sarasua (Lezo), Motxo (Muruetan) eta Rafa Alegria (Bermeo).

OTSAILAK 8

17:00 Idi probak : Igeldo (Ezkio-Itsaso), Mendigoiti (Eibar) eta Zumeltxu (Zamudio).

22:00 Idi probak: Olalde (Urrestilla), Soarte (Elgoibar) eta Judith Goenaga (Bermeo).

OTSAILAK 9

17:00. Idi probak: Construcciones Echaide (Ezkio-Itsaso), Iñaki Lopategi (Billela-Birle), Zornotzako Anaia (Zalla) eta Kamiñoko Erretegia (Muruetan).

OTSAILAK 10

21:00 Idi probak: Igone Pagadizabal (Hondarribia), Urna Olabarrieta (Goierri-Erandio), Olatzar Eraikuntzak (Lezo) eta Elorrieta (Laukiz). Ondoren, sari banaketa.

OTSAILAK 15

09:00 XXXV. Burduntziko bildots txapelketa.

14:00. Bildots bazkaria probalekuan.

ZELAIETAKO JUBILATUZAK

Eskerrik aska etartziarren

Solozabal 1, baxua. ABADIÑO

La txaberri
orotzapenen zaporea

Etxez etxeko okela salmenta astero

618 439 054 Ibon Lasuen | 620 321 184 Esther Ugaldea

Kaixo Abadiño!

Badator San Blas! Ondo pasa jaietan!

EROSKI
zurekin

Bideo bat, orain 50 urteko sanblasen lekuko

Gerediaga elkarteak 1973ko San Blas ferian grabaturiko bideo bat berreskuratu du. 19 minutuko filma da, soinurik bakoa. Barikuan aurkeztuko dute jendaurrean, 19:30ean, Txanportan. Ikus-entzunezkoa Garaia plataforman ipiniko dute ikusgai

Ekaitz Herrera IKUS-ENTZUNEZKOA
Gorderik zegoena argitara atara dute, eta horregaz, ondarea aberastu. Gerediaga elkarteak 1973ko sanblasetan grabaturiko bideo bat berreskuratu du. 19 minutuko filma da, giro-soinurik bakoa, eta garai hartako San Blas eguna eta Abadiño zelakoak ziren ikusteko ezin aproposagoa. Irudietan, Zelaie-ta auzoko kaleak eta eraikin zaharrak identifikatu daitezke. Era berean, urte hartako idi probak eta postuak daude ikusgai. 1973an, otsailaren 3an bakarrik ez, biharamunean ere ospatu zuten San Blas eguneko azoka. Bideoa Txanporta kultur



Gerediaga berreskuratutako bideoko fotograma bat. GEREDIAGA

etxean estreinatuko dute, bari-ku honetan, urtarrilak 31, 19:30ean.

Orduko feria testuinguruan ipintzeko, 1967ra egin behar da atzera, edizio hartan berriztu egin zuten eta, Gerediaga elkar-tearen eta Jose Luis Lizundiaren bultzadagaz. Urte hartan, gaur-daino iraun duten ohitura batzuk ipini zituzten; besteak beste, baserriko tresneria azokan zehar ikusgai eta salgai ipintzekoa, eta ferriako posturik onenak sar-ritzeko lehiaketa. Azken hori dela eta, sei postu saritu zituzten "Durangoko Merindadeko base-rritar aurrerazaleen" artean: Amaitemingo Errota baserriko Jose Martin Unzalu eta Iurre-tako Elorriaga-Atxekoa baserri-ko Julian Uribelarrea (abelgo-rrien kategorian); Berrizko Eitua auzoko Zubitueta base-rriko Juan Cruz Gorroño eta Elorrioko Arana auzoko Osin-txueta baserriko Gregorio Beitia (ortu-fruten kategorian), eta Orozketako kofradiako San An-dreseko auzotarrak, eta Garaiko Santa Katalina auzoko Urien baserriko kideak (auzolanen kategorian).

Eskualdeko bideoen gordailua

Gerediaga elkarteak eskualdeko beste hainbat ikus-entzunezko gaz batera gordeko du sanblasetako bideoa, Garaia izeneko biltegian (*garaia.gerediaga.eus*). Atarian, Durangaldeko historiagaz, kulturagaz eta gizarte-gaiekin loturiko ikus-entzunezkoak daude, izan lekukotzak, izan filmak, izan dokumentalak. Orain urtebete sortu zuten tresna, eta aurrerantzean ere hori elikatzen jarraitu gura dute. Abadiñori dagokionez, Gerediaga *Errekatxo* dokumentala ipini du Garaia plataforman orain dela gutxi. Datozen asteetan sareratuko dute 1973ko sanblasetako bideoa.

Luzia
hitzorduekin
610 28 76 32

Masajeak
Osteopatia
Kinesiologia
Kranio-sakral
biodinamika

Artokuzabal kalea, 6 - Abadiño

→ euskal
markak hazten
diren lurra

www.sorland.eus • info@sorland.eus

sorland

elebe
ileapaindegia

Solarium bertikala
Masaje lasaigarria
Ile-apaindegia
Estetizista

Iturritxo, 2 behe
ABADIÑO
Tel.: 946 550 105

**MURUETA
BASERRIA**
NEKAZALTURISMOA

Murueta, 4 ABADIÑO
Tel.: 658 747 471

SERRATU S.L.

Ondo pasa San Blasetan!

Galdaragintza eta itxierak
Enpresetan mantentze-lanak

Astola, 48 ABADIÑO - Tel.: 946 201 837
serratu@serratu.com • www.serratu.com

elur
arraingegia

ORDUTEGIA
Astearte eta ostegunetan:
08:30 - 13:00 eta 17:00 - 19:00
Asteazken, ostiral
eta larunbatetan:
08:30- 13:30

Elur Arraindegia
Zeletabe, 19 Abadiño
T. 649 597 187

Abadiño prest San Blas egunez milaka lagun hartzeko

Abadiño Udalak autobus zerbitzu berezia ipini du Traña-Matienatik Zelaietara joateko. Autobusak etengabe ibiliko dira, 09:00etatik 16:00ak bitartean



Talao San Blas eguneko produktu izarretariko bat izaten da.

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO
Astelehenean milaka lagun baturko dira Abadiño San Blas azokan. Herria abeltzain eta nekazarien erakusleia izango da beste behin ere. Guztira, 130

**ASTELEHENEKO
AZOKAN 130
PRODUKTORE ETA
180 ABELBURU
EGONGO DIRA**

ekoizle eta 180 abelburu egongo dira bertan. "Iazko zenbakiak gaintitu ditugu", azaldu du Mikel Urrutia Abadiño alkateak.

Aurreikuspen guztien arabera, asteleheneko azokak osagai guztiak ditu arrakastatsua izateko. Iragarpenek diote eguraldi ona egingo duela, eta azken urteetako ekoizlerik gehien egotea eta jendetza bertaratzea itxaroten da. "Abadiñoak batzen gaituen jaia da, San Blas azokaz harro gaude eta mundu guztiari gure herrira bertaratu eta sanblas jaiez gozatzeko dei egiten dizuegu", gaineratu du Urrutiak.

Urtero legez, ez da jai girorik faltako otsailaren 3an Abadiñon, eta goizetik gauera arteko programazio berezia antolatu dute bertarako. Txistulariak, bertsolariak, herri kirolak, idi probak eta kontzertuak egongo dira, besteak beste.

Txistularien kalejiragaz emango diote hasiera egunari, 10:00etan, eta 12:00etan Txaber Altube, Garikoitz Sarriugarte eta Bittor Altube bertsolariak arituko dira bertsotan; ordu berean, herri kirolak egongo

dira probalekuan. 17:00etan Muxtruk erromeria egongo da Ferialekuan, eta DJak Gaztetxean eta Elkartasun plazan. Gaztetxean Txola eta Potxola, Malakias MX3, Lamikiz eta Abadiño Karmentxu arituko dira musika ipintzen. Elkartasun lonjan, DJ Bull.

18:00etan, San Blas setako idi proba txapelketari hasiera emango diote probalekuan. San Blas setako idi proba txapelketa otsailaren 3an hasi eta hilaren 10era bitartean jokatu da. Ganadutegi hauetako idi pareak lehiatuko dira proban otsailaren 3an: Ipeñarrieta, Gotzon Plaza eta Iñaki Lopategi.

"Udal langileek, elkarteek eta boluntarioek hainbat aste daramatzate lanean azoka eta San Blas jaietako egitaraua antolatzen, eta egindako ahalegina eskertu gura dugu", azpimarratu du alkateak. "Egitarau eta jai hau esfortzu kolektiboaren emaitza da. Horregaitik, mundu guztiari dei egiten diogu bertaratzeko, San Blas gure tradizioa baino askoz gehiago da eta", gaineratu du Edurne Maguregi alkateordeak.

ABADIÑO KO
BATZOKIA

Ondo pasa
San Blas jaietan!



Ferialeku plaza, 3 | Tel.: 636 918 937



OLIO ALDAKETA
PNEUMATIKOAK
marka guztiak
BALAZTA-PASTILLAK
MOTELGAILUAK

Uribitarte Industriegunea, 6 MATIENA-ABADIÑO
Tel.: 946 232 520

@neumaticosetxebarria



Larrano
taberna

Tel.: 604 938 047



ERLIA
CONTENEDORES
www.contenedoreserlia.com

- Geure hondakindegia dugu.
- Harrobletako materialen banaketa.
- Obra-hondakinak eta industriako hondakinak kentzen ditugu.
- Industriako eta obretako hondakin inerteen kudeaketa.

Astola auzoa, 68 • 48220 ABADIÑO
Tel.: 646 247 350 / 946 814 107



LASUEN

ERAIKUNTZA · OBRA ZIBILA · ZABORTEGIAK



CONSTRUCCIONES LASUEN

Astola auzoa 68
48220 Abadiño, Bizkaia
Tel.: 946 81 40 36
clasuen@lasuen.com





laz, zapatua izanda, jendetza batu zen.



San Blas eguneko azokak hainbat ekoizle batzen du.

Doako autobus zerbitzua

Bestalde, iaz legez, aurten ere doako autobus zerbitzua egongo dela jakinarazi dute Abadiño Udaletik, eta jendeari berau erabiltzeko gonbita egin diete. "Ez dugu lortu Bizkaibusek autobus zerbitzuan errefortzurik ipintzea, baina Abadiño Udaletik esfortzua egin eta etenik barik ibiliko diren autobus bi ipiniko ditugu", esan du Urrutia alkateak. 09:00etatik 16:00ak bitartean izango da autobus zerbitzua, etengabe, Traña-Matie-

natik (Hezgarri aurreko autobus geltokitik) Zelaietara.

Hainbat hobekuntza

Horrez gainera, iazko azoka arrakastatsuen ondoren, hainbat hobekuntza detektatu zituztela ere jakinarazi dute udaletik. Hori horrela, aurten Ferialeku plazan ipiniko dituzten komunitan une oro garbiketa zerbitzua egongo dela eta San Blas eguneko garbiketa zerbitzua ere indartuko dutela azpimarratu dute.



- CAMBRIDGE AZTERKETEN PRESTAKETA
FIRST (B1)
ADVANCED (C1)
PROFICIENCY (C2)
BUSINESS ENGLISH
ZIURTAGIRIAK (BEC)
- HEO AZTERKETEN PRESTAKETA
- KLASEAK ENPRESETAN:
OROKORRA
& BUSINESS ENGLISH
- ESKOLA ERREFORTZUA

SOLOKOA, 4 - 661 048 674
englishcornerabadiño@gmail.com

APAINGARRI
ETA INDUSTRIALA



FATXADETAO
PROIEKTU BEREZIAK
ERA GUZTETAKO
BARNE ETA KANPOKO
DEKORAZIOAK

Sagasta auzoa - Arne Goikoa
ABADIÑO
Tel.: 629 143 944



Iturritxo kalea, 3
ABADIÑO

Tel: 688 69 08 15
www.basquecountry.bike
info@basquecountry.bike



Iturritxo, 2B behea
48220 Abadiño
Tel.: 946 201 385



ZAINDU HAGIN KLINIKA
Odontologia orokorra eta espezialitateak

Urmeentzako odontologia • Ortodontzia (P.A.D.I. programa)
Implanteak • Periodontzia • Aho-estetika • Protesiak • etab.

Mari Tere Zamalloa Juaristi
Periodontzian espezializatua - Col.1005

Ferialeku, 1 • Abadiño
Tel.: 94 465 73 42

GIASOLA PENTSUAK
EKOGARDEN
FLORIS - PIENSU - ABERTA
GIASOLA PENTSUAK
EKOGARDEN
LORAK - PENTSUAK - BARATZA
TRAÑA - MATIENA - ABADIÑO - BIZKAIA
TEL: 94-681-66-87
C/ ZUBIBITARTE 14
E-mail: gisasola.p@gmail.com



Andra Mari Kalea, 3
688 78 69 36

Maialen Zuazubiskar ATXONDO

Egun batzuk baino ez dira falta aurtengo San Blas azokarako, eta Panarra okindegira bertaratu gara, Arrazolara, euren lan jarduna bertatik bertara ezagutu eta azoka baterako zelan prestatzen diren ikusteko asmoz. Panarra baserriko atartearen, anisaren eta ogi egin berriaren usaina uztartzen dira. Langileak geratu barik dabilta lanean, eta Gabi Romero Panarrako arduradunak ANBOTOri azaldu dionez, euren produktuak egunekoak direnez azoka aurreko eguna izaten da eurentzat gogorrena.

San Blas azokarako astebete besterik ez da falta. Dagoeneko prestatuta lanetan buru-belarri hasita zaudete, ala oraindino ez?

Gure produktuak eguneko jakiak direnez, freskoak direnez, ogia, gozogintzako produktuak, pastelak... azoka aurreko gauean prestatzen ditugu. Normalean, pare bat egunean gaupasa egiten dugu dena prestatzeko eta azokara gure produkturik onenak eramateko. Hemen egoten gara, obradorean, jai betean.

Baina San Blas opilen kasua desberdina izaten da. Opil hauek paketatxoetan joaten direnez eta hauen iraupena ere luzetxoagoa denez, aste oso bat ematen dugu azokara eramateko sanblasak egiten. Eta, jakina, sanblas horiek aste osoan zehar okindegian eskuragarri izaten ditugu betiko bezeroentzat.

Beraz, lan handiko egunak dituzue aurretik.

Bai, data hauek zoratzeko moduko egunak izaten dira. Beti esaten dugu guretzat Gabonak San Blasetan amaitzen direla. Gabonetan ere lan mordoa izaten dugu, batez ere errege-opilak eta ogia egiten. Errege

"Gaupasa egiten dugu azokara produkturik onenak eramateko"

GABI ROMERO PANARRA OKINDEGIKO JABEA

Arrazolako Panarra okindegian lanean buru-belarri dabilta otsailaren 3ko azokarako produktuak prestatzen



Gabi Romero okindegian, Gari semea eskuetan duela.

egunaren ondoren, lau bat egunean jai hartzen dugu, indarra hartu eta San Blaseta animoagaz joateko.

Zer topatuko dute San Blas azokan Panarrako erakusmahaira bertaritzen direnek?

Hainbat produktu. Gure produktu guztiak eramaten ahalegintzen gara, jendeak ikusi eta erosi ditzan. Sanblasak eramango ditugu, *felixianuak*, croissantak eta ogi barietate guztiak, besteak beste. Hala ere, dudarik barik, otsailaren 3an sanblas opilak izaten dira gure produktuzarraz.

'Felixianuak' aipatu dituzu. Hori zuen beste elikagai izarretariko bat da. Ez dakienarentzat, zer dira felixianuak?

Felixianua denok ezagutzen dugun txoripanaren antzekoa da. Ogiari txorizoa sartzen diogu barruan, baita urdai apur

"HORRELAKO OGIAREN FALTA ZEGOEN BAILARAN, ETA ESANGO NUKE JENDEA POZIK DAGOELA"

bat ere. Horrek freskoago mantentzen du, koipe gehiagogaz. Izenari dagokionez, baserri honetan Felixiano deitzen zen gizon bat bizi zen eta bere omezez genion *Felixiano* izena.

Azokak garrantzitsuak izaten dira? Gu eguneroko lanera dedikatzen garen arren, azokak garrantzitsuak direla uste dugu. Alde batetik, azokek energia asko kentzen digute, gure produktu guztiak eramatea gustatzen zaigulako eta eguneroko bezeroei ere erantzutea gura izaten dugulako. Horregaitik, urtean hiru azokatarra baino ez gara joaten.

Hala ere, oso garrantzitsuak direla uste dugu.

Panarra okindegiak 2021ean zabaldu zituen ateak. Bikotekideak eta biek zabaldu zenuten, baina negozioa hazten joan da. Zelako bilakaera izan du?

Dagoeneko lau urte joan dira okindegia zabaldu genuenetik, bai. Orditik taldea handitu egin da, lantalde polita eratzea lortu dugu eta, zorionez, lan askogaz gabiltza. Ea urte luzez horrela jarraitzen dugun.

Arrazolan eta Atxondon ez ezik, eskualde osoan ere izena hartu duzue. Itxaroten zenuten?

Inondik inora. Negozio hau neuk lan egiteko ipini nuen, asko jota beste pertsona batezagaz. Eta, jakina, Irati bikotekideagaz. Modu lasai batean lan egiteko zoezer izatea zen gure asmoa. Baina bideak beste leku batera eramantzen gaitu. Hala ere, polita da. Polita da jendea behar duina eskaintzea eta denok elkarregaz lan egitea.

Gainera, esango nuke meretziduelako izan duela harrera ona gure produktuak. Nire ustez, horrelako ogiaren falta zegoen bailaran, eta esango nuke jendea pozik dagoela eta eskertzen duela.

Amaitzeko, ezer gehituz gura zenuke?

Mundu guztia San Blas azokara joatea espero dut, eta bertan elkar ikustea, jai giroan.

MIKEL HARATEGIA

Eskolakua, 2
ABADIÑO
Tel.: 946 815 452

Talleres Serafín
S.Coop

Elorriagazar, 11
MATIENA-ABADIÑO
Tel.: 946 814 807

DIBA
KOOPERATIBA

Durangaldeko
Baserritarren
Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92



ITZALAK

Zein itzal dagokio beheko irudi bakoitzari?




BIKIAK

Bikoteka elkartu. Zein ez dago errepikatuta?



LERROEI JARRAITU

Lerroaren gainetik marraztu



ZENBATU

Objektu bakoitzetik zenbat aurkitu ditzakezu?





Xanti Agirrezabala, Amancay Gaztañaga, Iraia Elias eta jesarrita Erika Olaizola. KAMIKAZ KOLETIBOA

"Gizarte berri bat sortu eta sinesgarri egitea izan da zailena"

ANTZERKIA Kamikaz kolektiboak zapatuan estreinatuko du bere lan berria, 'Renata'; Durangoko San Agustin kulturgunean egingo dute estreinako emanaldia, azken entsegu egunak bertan lanean igaro eta gero; 19:00etan hasiko da emanaldia

Aritz Maldonado DURANGO

Hamar urteko ibilbidean, gai sakonak umoretik jorratu daitezkeela erakutsi du Kamikaz kolektiboak. Zapatuan estreinatuko duen *Renata* antzezlanak heriotza du ardatz, baina bizitzaz berba egiten du, batez ere. Iraia Eliasi, Erika Olaizolari eta Amancay Gaztañagari Xanti Agirrezabala batu zaie lan honetan. ANBOTOk Gaztañagaz berba egin du.

Nor da Renata?

Hil eta berpizteko ahalmena

duen pertsona bat da Renata, misio bat bete behar duena mundu ero hau salbatuko badu. Eta horretara etorri da.

Kamikazek DNAn darama umorea. Bai, umore garratz, bizi eta lotsagabe horrek bereizten gaitu,

"SORKUNTZAN KAMIKAZ BEZALAKO TOKI SEGURU BAT EDUKITZEA ZORAGARRIA DA"

eta hortik jo dugu oraingoan ere. Hori irteten zaigu naturalen. **Oraingoan ere fikziora jo duzue.**

Distopia bat da. Sortu dugun gizarte hau muturrera eraman badugu ere, ez dago guretik hain urruti ere. Agian, Barbara Rasoren arropak ere eramaten gaituzte distopia bat markatzen, baina ez da zientzia fikzioa, gehiago izango litzateke fabula bat, ipuin bat.

Umoreak erraztu egiten du egia esatea?

Guk oso arma ontzat hartu izan

dugu beti umorea. Gai sakonak eta potoloak hartzen ditugu, kasu honetan heriotza, eta gizarteak daukan behar hori hutsunea betetzeko eta sufrimendua aldentzeko. Gai sakona da, baina umoreak horri buruz hitz egitea ahalbidetzen digu, baina, aldi berean, kritika zorrotz bat egin ahal izatea. Baina, beste alde batetik, etxera joan eta gero konturatu zaitezke, 'zer ikusi dut?', eta konturatzeko zara beldur pixka bat ematen duela gure gizarteak (barrez).

Arintasunetik berba egin daiteke gauza sakonei buruz?

Umorea eta arintasuna nahasten ditugula uste dut. Umoreak zerbait oso potentea dauka, eta beste ikuspuntu bat ematen dizu. Edozein arazo, gai, edo sakondu nahi duzun edozeri buruzko beste ikuspuntu bat ematen dizu, dramara eraman gabe, eta horrek nolabaiteko apurketa bat sortzen dizu barnean, beste angelu batetik ikusi dezakezulako.

Dualitateak planteatzen dituzue, heriotza-bizitza, errealitatea-mundu birtuala, kolektiboa-bakardadea...

Dena beltza edo zuria den garai batean bizi gara? Gizarte geroago eta polarizatuago dago?

Guk planteatzen dugun gizarte hau gizarte demokratiko positibista bat da, mundu mailako gobernari bakarra izango du; Jessica Ding Dong presidenteak mundu mailan gobernatuko du. Gizarte honetan ez dago dudarako edo kezkarako tokirik, danek berdin pentsatzen dute, berez; baina, noski, inork ez dugu berdin pentsatzen. Hain zuzen ere, gizartean gertatzen ari den polarizazio horrek eramaten gaitu bestearen ikuspuntua ez ulertzera, entzun nahi ez izatera, denok berdin pentsatu beharko bagenu bezala, eta guk hori muturrera eraman dugu; pentsatu dezagun denok berdin, ea zer gertatzen den. Horixe da gure jolasa.

Erroka handia izan da mundu berri hau sortzea?

Bai. Renatak zailtasun dramaturgiko handi bat dauka, plano desberdin piloa du, hain zuzen ere. Alde batetik, distopia bera

"UMOREAK BESTE IKUSPUNTU BAT EMATEN DIZU GAI BATI HELTZEKO, BESTE ANGELU BAT"

eraiki behar da, gizarte hori justifikatu, eta horri denbora asko eskaini diogu. Azken finean, unibertso oso bat eraiki dugu, eta bide hori konplexua izan da. Orain bizitzen ari garen mundu konplexu honetatik eta bere ezaugarrietatik ahalik eta gertuen egon nahi genuen, eta horiek muturrera eraman, aldi berean. Eta hortxe sortu dugu gizarte hori. Esan bezala, obrak geruza asko dauka, eta geruza horiek ondo lotu behar ziren, ezin zen haririk puntadarik eman gabe geratu. Bestela, ez luke funtzionatuko, ez litzateke hain sinesgarria izango. Publikoa sartu eta gizarte hori ikusiko du hasieratik, eta, beraz, horrela dela ulertu behar du. Horixe izan da errokarik handiena. Hori, eta hil eta berpiztu egiten den pertsona bat existitzea ere (barrez). **Eta teknika aldetik, zelan planteatu duzue?**

Laugarren pertsona bat sartu da gurekin lanera, eta teknikoki ere bere konplexutasuna du, lau aktore garelako, baina lanak hogeita hamapiku pertsonaia ditu. Orduan, konplexua da magia hori espazialki sortzea; Imanol Garciaekin ari gara hori lantzen aste honetan. Jantzien aldetik ere, lau aktore horiek gizarte oso bat eraikitzen dute, eta, beraz, ez da erraza sinesgarria izatea. Teknikoki konplexua da.

Hamar urte pasatu dira Kamikaz sortu zenuela. Pozik ibilbideagaz?

Bai, oso pozik. Hamar urteren ondoren, une oro ikasten ari garen sentsazioa dugu. Hasiberriaren mentalitatea mantentzea oso garrantzitsua da, ikasle begirada horri eustea, eta aldi berean jakitea bizkargainean ibilbide itzela dugula. *Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi* lanarekin, adibidez, Donostia Saria irabazi genuen, 50 emanaldi inguru egin genituen, eta da *Renatak* zer ekartzen digun. Taldea, kolektiboa, indartzen doa, eta ikasten doa.

Zortzi antzezlan, kolaborazioak, ikus-entzunezko lanak... Kamikaz deitza ez da kasualitatea.

Talde emankorra gara. *Renata* antzezlanaren ideia, adibidez, duela bi urte sortu genuen, *Troia* egiten ari ginenean; momentu horretan kale antzerkia behar genuela uste genuelako egin genuen. Kamikaz bada toki bat gu geu izan gaitzkeena, eta sorkuntzan horrelako toki seguru bat edukitzea zoragarria da.

L'atelierrek sariak Developpe txapelketan

DANTZA L'atelier dantza eskola Nazioarteko Developpe Dantza Lehiaketaren lehenengo edizioan lehiatu zen asteburuan. Igor Yebrak eta Jone Goirizelaia koreografoak antolatzen dute lehiaketa, Bizkaiko Foru Aldundiak, Bilboko Udalak eta BBK-k lagunduta

Jone Guenetxea DURANGO

Durangoko L'atelier dantza eskolako kideak zaku bete sarigaz bueltatu ziren joan zen asteburuan Bilboko BBK Aretoan lehiatutako Developpe txapelketatik. Ekimen honen estreinako edizioan, lehen mailako epaimahaiakideek parte hartu zuten. 10etik 19 urtera bitarteko ia 300 parte hartzaile barikuan eta zapatuan lehiatu ziren, domekako finalera heltzeko helburuagaz. Oiane Azconizagak zuzentzen duen Durangoko L'atelier dantza eskolako kideek emaitza ezin hobeak izan zituzten. "Oso harro gaude gure ibilbideaz eta egiten gabiltzan lanaz", azaldu dute dantza eskolako arduradunek. Koreografien mailak pisu handia izan zuen sailkapenean. Alde klasikoan, Azconizagak berak sortutakoak izan dira, eta dantza garaikidean Leire Cotorek.

BabyStars taldeak lehenengo saria eskuratu zuen taldekako



L'atelier dantza eskolako kideak, Bilboko BBK Aretoan. L'ATELIER.

dantza klasikoaren atalean. Minishock eta Boomlight taldeek bigarren postua eskuratu zuten dantza garaikidean, berdinduta.

Starlights taldeak hirugarren saria eraman zuen taldekako klasikoan. Intza Canok hurre-

tan, klasikoaren lehenengo saria lortu zuen, eta Mara Urigüenek, garaikidean, bigarren saria.

Kaiet Amezua lehenengo postuan sailkatu zen dantza klasikoan, nagusien atalean. 3.000 euroko saria irabazi zuen.



Artxiboko irudia. JUAN DE ICIAR ELKARTEA

Boluntarioak behar dituzte 'Durangoko Pasiñoa' egiteko

ANTZERKIA 'Durangoko Pasiñoa' ikuskizunaren 30. edizioa prestatzen dabilta; apirilaren 15etik 18ra egingo dute

Aritz Maldonado DURANGO

Juan de Iciar elkarte kulturala *Durangoko Pasiñoa*-ren edizio berria prestatzen dabil, 30.a, hain zuzen ere. Edizio berezia izateaz gain, erronka handi batez ekin diete prestaketa lanei: boluntario bila dabilta belaunaldi aldaketari aurre egiteko. "Paper zehatzen banaketagaz hasi gara, baina batzuk zehazteko ditugu oraindino. Dena dela, otsailaren 5era arte ez gara irakurketekin hasiko; beraz, norbaitek paperen bat interpretatu gura badu, oraindino etorri daiteke", azaldu dute elkartetik. "Herri lana egiteko,

80-100 lagun egotea da egokiena, eta orain 50 inguru gaude. Baina antolaketan, muntaketan eta abarretan ere lagundu daiteke", gehitu dute. Hau da, boluntario edozein izan daitekeela azpimarratu dute, adin tarteari erreparatu barik.

Durangoko Pasiñoaren 30. edizioa apirilaren 15etik 18ra bitartean egingo dute, eta martxoaren 10ean hasiko dira entseuekin. Astelehen eta eguaztenetan batuko dira, 21:00etan. Informazio gehiagorako, interesdunek juandeiciarelkarte@gmail.com helbidera idatzi dezakete.



GAI LIBREAN

GARAZI ARRIZABALAGA CABRERIZO DURANGOKO MUSEOA

Isilaraziak XXI

Gaur egungo gizartean argazki bat egitea ez da aparteko zerbait. Denok dugu patrikan telefono bat, eta honekin egunean zehar hamar edota ehun argazki egiteko gai gara. Hain dago barneratuta gure gizartean argazkiak egitea, ezen noizbait hau existitu ez zela ia ez dugula pentsatzen. Historiako lehenengo argazkia 1824koa dela esaten da, Joseph Nicéphore Niepcekin eginikoa, baina ez zen 1888ra arte izan Kodak enpresak lehen karretedun kamera asmatu zuen arte. Honek guztiz aldatu zuen argazkigintza.

Hasieran, argazkiak ez ziren oso ondo kontsideratuak izan. Pinturak zuen garrantzia, eta pintoreei lagungarri izateko elementu bezala hartzen ziren argazkiak. Egoera honek emakumeak argazkigintzan aritzea ahalbidetu zuen, gizonezkoek ekintza hau bigarren mailakotzat hartzen zutelako. Honi esker, XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran emakume asko argazkilaritza aritu ziren.

Aipatzekoak dira Frances Benjamin Johnston, Christina Broom, Sabina Muchart Colboni, Vivian Maier, Dora Maar, Diane Arbus, Germaine Krull, Margaret Bourke White eta, etxera etorrita, Eulalia Abaitua.

**"XIX. MENDE BUKAERAN ETA
XX. MENDE HASIERAN EMAKUME
ASKO ARGAZKILARITZAN
ARITU ZIREN"**

**"ZENBATEK EZAGUTZEN
ZENITUZTEN AIPATU DITUDAN
ARGAZKILARI HANDIAK?"**

Aipagarria da autore hauek guztiek duten antzekotasuna: aurretik gizonezkoek inoiz erakutsi ez zuten errealitate bat erakusten dutela. Argazkilaria hauek egunerokotasuna erakusten zuten; ume eta gazteen jolasak, etxeko lanak, marjinatuak, ahaztuak, pertsona zaharrak, etab. Artearen Historia osoan, gizonezkoek errepresentatu dituzten beste gizon erretratuetatik urruti, zaldi-irudi inperialistetatik urruti, errege eta erreginen edo eliz gizonen erretratuetatik urruti, gerra eszena idealizatuetatik urruti. Emakumeak ez dira biluzik agertzen, eta agertzekotan ez dira gorputz perfektuak azaltzen, erreala baizik. Argi dago argazkigintzak mundua emakumeen begietatik nolako zen ikusteko aukera eman digula. Urteetan, emakumeek debekatua izan zuten errealitatea errepresentatzea, eta kamera batek eman zien aukera hori. Hori bai, zenbaterik ezagutzen zenituzten aipatu ditudan argazkilaria handiak? Zuen hausnarketarako uzten dut galdera hau.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 31

ABADIÑO Kontzertua

Jhonny Rocks.
Zelaietako Jubilatuen tabernan,
22:00etan.

ABADIÑO Emanaldia

1973. urteko San Blas feriako irudiak batzen dituen bideoaren emanaldia. Gerediaga elkarteak digitalizatu ditu irudiok, Garaia biltegian bistaratzeko.
Txanporta kultur etxean, 19:30ean.

DURANGO Berbaldia

'Erresiliientzia eta motibazioa' (Hizlaria: Ibon Oregi).
Otamotzena Auzogunean, 18:00etan.

DURANGO Erakusketa

'Nestor Basterretxea. Diseinatzaile grafikoa eta ilustratzailea'.
Arte eta Historia Museoa,
otsailaren 2ra bitartean.

DURANGO Lehiaketa

Abesti Feministen VII. Lehiaketara aurkezteko epea zabalik dago.
Durangoko udaleko webgunean,
otsailaren 14ra bitartean.

ELORRIO Deialdia

Elorrixoko Gaztetxearen 37. urteurrena antolatzeneko batzar irekia. Ondoren, jokoak.
Gaztetxean, 19:00etan.

IURRETA Ipuin kontalaria

'Taxia paradisura' (Mireia Delgado). 4 urtetik gorako umeei zuzenduta. Esker Oneko Jardunaldi Literarioak. Bibliotekan, 18:00etan.

IURRETA Ahozko narrazioa

'Taxia paradisura' (Mireia Delgado), helduentzako ahozko narrazioa. Esker Oneko Jardunaldi Literarioak. Bibliotekan, 19:00etan.

IURRETA Kontzertua

Iker Piris.
Korta tabernan, 20:30ean.

ZORNOTZA Dantza

'Arima' (Berriketana konpainia).
Zornotza Aretoan, 20:00etan.

ZORNOTZA Erakusketa

'Essaouira: Haize Uriá' (Iban Gorriti).
Zelaieta zentroan.

ZAPATUA 1

DURANGO Antzerkia

'Renata' (Kamikaz kolektiboa).
San Agustin kultur gunean,
19:00etan.

IURRETA Irteera

Enekurira bizikleta irteera, lurreta Txirrindulari Elkarteak antolatuta.
lurretan, 10:00etan.

IURRETA Kontzertua

J.M. Akustik.
Korta tabernan, 20:00etan.

ZORNOTZA Jaialdia

Zornotzatik Independentziara. Erakusketa, 12:00etan, Piken. 'Bat eginez independentziara' berbaldia, 12:30ean, Zelaietan. Triki-poteoa, 13:30ean, Luisutik. Bazkaria, 15:00etan. Akustikoa: Heitxi eta Alain. 'Gazteon eskutik' aurkezpena bertsotan. Elektrokutau elektroxaranga, 18:30ean. Erromeria, 21:00etan, Piken. DJak, 23:30ean, Herriko Tabernan. Zornotzan.

DOMEKA 2

ABADIÑO Kandelaridxo

'Kandelaridxo' kanta abesteko deia.
Txanporta kultur etxearen aurrean,
19:00etan.

IURRETA Irteera

Fruizera bizikleta irteera lurreta Txirrindulari Elkarteak antolatuta.
lurretan, 10:00etan.

OTSAILAK 3

ELORRIO Erakusketa

'Dolua perinatala ikusaraziz' (Esku Hutsak elkarteak).
Iturri kultur etxean, otsailaren 28ra bitartean.

MARTITZENA 4

ELORRIO Santa Ageda

Santa Ageda koplak abesteko deia, Iturizoro elkarteak antolatuta.
Herriko plazan, 19:00etan.



ANDER ARRIGURI

ELORRIO Musika

Sara Sozaya artista donostiarra eta Bloñ musika taldeak kontzertua emango dute, gaur, Elorrioren. Sozayak 2003an kaleratu zuen bere lehenengo lan luzea. Bloñ, Bañolet websailaren inguruan sorturiko proiektua da.
Urtarrilak 31, barikua, Ateneoan, 22:30ean.

GARAI Santa Ageda

Santa Ageda koplak abesteko deialdia, San Migel jubilatuen elkarteak antolatuta. Baserritar jantzita joatera gonbidatu dute.
Plazan hasita, 20:00etan.

IURRETA Santa Ageda

Santa Ageda koplak abesteko deia, Abenduko Lagunak taldeak antolatuta.
Plazan, 16:45ean.

ZORNOTZA Erakusketa

'Biluztasuna' (Pintzelak elkarteak).
Zelaieta zentroko erakusketa aretoan, otsailaren 21era arte.

ZORNOTZA Santa Ageda

Santa Ageda koplak abesteko deialdia, Armendola elkarteak antolatuta.
Herriko plazan, 20:00etan.

EGUENA 6

ATXONDO Berbaldia

'Cuidados y vejez: Viviendas colaborativas a lo largo y ancho de Europa' (Hizlaria: Irati Mogollón).
Eskolako eraikin zaharrean,
18:00etan.

BARIKUA 7

BERRIZ Antzerkia

'Zepo Zapo' (Markeliñe konpainia).
Kultur Etxean, 17:00etan.

ELORRIO deialdia

Elorrixoko Gaztetxearen 37. urteurrena antolatzeneko batzar irekia. Ondoren, murala margotuko dute.
Gaztetxean, 19:00etan.

MAÑARIA Bisita gidatua

'Harrobiak, bideak eta bentak' bisita gidatua, Berbalagunen eskutik.
Plazan, 16:00etan.

ZORNOTZA Antzerkia

'Itzulera' (Dejabu konpainia).
Zornotza Aretoan, 20:00etan.

ZAPATUA 8

ABADIÑO Musika

IX. Amaraun Elektronikoa.
Amaraun Arte Fabrikan, 14:00etan hasita.

BERRIZ Antzerkia

'La cosa' (Cristina Castillo).
Kultur etxean, 19:00etan.

DURANGO Antzerkia

'Cuenta atrás' (Banarte antzerki taldea).
San Agustin kultur gunean,
19:00etan.

ZORNOTZA Antzerkia

'Ensayo general' (Banarte antzerki taldea).
Zornotza Aretoan, 19:00etan.

ZINEMA

BERRIZ

KULTUR ETXEAN

Mufasa

Domeka 2: 17:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Mikaela

Barikua 31: 18:00, 20:30.
Zapatua 1: 17:00, 19:30, 21:30.
Domeka 2: 17:00, 19:30.
Astelehena 3: 18:00, 20:15.
Martitzena 4: 18:00, 20:15.
Eguaztena 5: 19:00.

La acompañante

Barikua 31: 18:00, 20:30.
Zapatua 1: 17:00, 19:30, 21:30.
Domeka 2: 17:00, 19:30.
Astelehena 3: 18:00, 20:15.
Martitzena 4: 18:00, 20:15.
Eguaztena 5: 19:00.

Corazones rotos

Barikua 31: 18:00.
Zapatua 1: 19:00.
Domeka 2: 19:00.
Astelehena 3: 18:00.
Martitzena 4: 18:00.

Azerik eta Erbi basoa salbatzen dute

Zapatua 1: 17:00.
Domeka 2: 17:00.

El castillo ambulante

Eguaztena 29: 19:00.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

Nosferatu

Zapatua 1: 20:00.
Domeka 2: 20:00.
Astelehena 3: 20:00.

Liztor kapitaina

Domeka 2: 17:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Cónclave

Zapatua 1: 20:00.
Domeka 2: 20:00.
Astelehena 3: 20:15.

Vaiana 2

Zapatua 1: 17:00.
Domeka 2: 17:00.

Oh, Canada

Eguena 6: 20:15.



Arriola antzokian.

Joseba Derteano ABADIÑO

40 urteko ibilbidean estreinakoz, Bidezabal atletismo klubak nazioarteko txapelketa batean parte hartuko du domeka honetan. Portugalgo Vilamoura eta Albufeira herrietan lehiatuko den klubaren arteko Europa Kros Txapelketan izango da. 20 urtez azpiko taldearen lorpena izan da. Sevillan, Espainiako txapelketan txapeldunorde geratuta lortu zuten sailkatzea. Lau kros-larik osatuko dute Bidezabalen taldea. Eurretari bat eskualdekoa da: Ixone Sanchez, 16 urteko abadiñarra. Gainerako hirurak Laia Cariñanos, Axpe Aja eta Andrea Buenavida dira.

Espainiako txapelketan Europakora sailkatzea sorpresa izan zen?

Juan Ignaciok [Hernandez, Bidezabaleko arduraduna] kalkuluak eginak zituen. Esana zigun bigarren geratzeko aukera genuela eta lehenengo postutik gertu ibili ahal ginela. Sinestuta joan ginen, dena emateko prest. Azkenean txapeldunorde eta lehenengo postutik gertu geratu ginen.

Noiz konturatu zineten sailkapena lortu zenutela?

Helmugako pantailan emaitzak ipintzen zituzten eta han ikusi genuen Bidezabal bigarren tokian zegoela. Bagenekien postu horregaz Europako txapelketara sailkatzen ginela. Hantxe bertan ospatu genuen lorpena, elkarregaz. Oso une polita izan zen.

Hitzordua ate joka dator. Urduri zaude?

Apur bat bai, baina Espainiako txapelketatik hona lorpena asimilatzeke denbora izan dugu eta lasaiago gaude, baina beti zaude apur bat urduri.

Zelan joan da prestaketa?

Ondo. Sasoiko nago eta daukadan dena emateko prest nago.

Zelan ikusten dituzu taldekideak?

Laiak eta Andrea kalitate handia dute. Ez dira nigaz entrenatzen, baina badakit sasoian daudela. Axpe Aja eta biok elkarregaz entrenatzen gara eta biok antzerako maila dugu. Bion arteko piketxoak gure onena ematen lagunduko digula uste dut.

Esperientzia bizitzea da helburua, ala posturen baten bila zoazte?

Europako txapelketara helduta, bete dugu geure helburua. Baina ez dugu ezer baztertzen; podiumera igotzea beharbada...

Podiumera igotzea, alajaina! Niri beste helburu bat helarazi didate:

"Europako txapelketara helduta, bete dugu geure helburua, baina ez dugu ezer baztertzen"

IXONE SANCHEZ SANTOS (ABADIÑO, 2008) KROSLARIA ETA ATLETA

Ixone Sanchezek 20 urtez azpiko Europako Kros Txapelketan parte hartuko du domekan, bere taldekideekin batera



Ixone Sanchez, Durangoko atletismo pistako entrenamendu batean.

Playas de Castellón taldearen aurretik geratzea.

Hori lortzea ere ondo legoke! Estatuan eurak eta gu baino ez gara sailkatu. Talde indartsua dute. Espainiako txapelketa euren irabazi zuten, baina gu gertu geratu ginen. Euren aurretik geratzea ez dut ezinezko ikusten.

Hainbat txapelketa irabazi duzu Bidezabaleguz: Euskadikoa haur kategorian, eta Bizkaiko hainbat. Zein da arrakastaren sekretua?

Nire kasuan, egiten dudana gustatu egiten zait. Entrenamenduetan dena ematen dut. Konstantzia da beste gako bat, apurka-apurka helburu zehatzak

lortzeko egiten den eguneroko lana.

Gurasoak, bai ama eta bai aita, atletak izandakoak dira. Ematen dizute gomendiorik?

Bai, biek laguntzen didate. Azken batean, nik baino esperientzia handiagoa dute eta euren gomendioak baliotsuak dira niretzat.

Pistan ere lehiatzen zara. Zer duzu gurago: krosa ala pista?

Krosa asko gustatzen zait, baina pistan aukera zabalagoa dago, proba gehiago dago. Horregaitik, pista dibertigarriagoa da. Krosak pistarako hauspoa handitzen laguntzen dit; hau da, lasterketetan erritmo biziagoi eusten laguntzen dit.

Pistan 400 eta 800 metroko probetan aritzen zara. 800ekoan Bizkaiko txapeldunorde geratu berri zara. Zelan gogoratzen duzu lasterketa?

Oso azkar irten ginen. Guraguen apur bat lasaiago irten bagina, baina, tira, aurrekoen erritmoari eustea lortu nuen. Azkenean txapeldunorde geratu nintzen eta pozik nago egingadako lanagaz.

Inoiz jauzi hirukoitza ere praktikatuz duzu, eta, behin, proba horretan lehenengo geratu zinen klubaren arteko Euskadiko txapelketan. Baztertuta duzun proba da?

Orain, bai. Jauzi hirukoitza gustatzen zait, baina prestakuntza espezifiko handia eskatzen du eta asko kostatuko litzaidake bueltatzea.

Beste probaren bat egin gura zenutela?

Proba konbinatuak egitea gustatuko litzaidake. Denerik probatzea gustatzen zait. Altuera jauzia ere probatu dut, dibertitzaileagaitik. Horregaitik, inoiz probatu gura dudana modalitatea dira proba konbinatuak.

Europako Kros Txapelketa alde batera utzita, zeintzuk helburu dituzu denboraldi honetan?

Martxo hasieran, 18 urtez azpiko Espainiako txapelketa izango da. Nire helburu nagusia txapelketa horretan aritzeke gutxieneko marka lortzea da: 400eko zein 800eko probetan, edo bietan. 800eko proban aukera gehiago dudala uste dut. Kroserako entrenatzen nabiltenez, 400 metroko probarako behar den abiadura-punta falta zait denboraldiko une honetan.

Distantzia bietan zertan hobetzea falta zaizu?

400 metrokoan, aipatu dudana, abiadura-punta hori lortzea. Batez ere hasieretan, txispa hori falta zait oraindino. 800 metrokoan, hobekuntza buruan dagoela uste dut, hanketan baino gehiago. Hanketan hobetzeko gaitasuna badudala uste dut. Arlo psikologikoa da landu beharrekoa, ahal dudala sinestea.



Ixone Sanchez (eskuman) eta Europako txapelketara sailkatzea lortu zuen taldea.

Kulturala puntu bila jaitsieratik urruntzeko

FUTBOLA Durangoko Kulturala Hirugarren Mailako amildegitik gertu dago. Itzulia hasi berria denean, jaitsiera postuan dagoen Padura puntu bi du azpitik. Horregaitik, garaipena behar du asteburuan Derioren zelaira egingo duen bisitan

Joseba Derteano DURANGO

Bigarren itzulia hasi berritan, Durangoko Kulturalari etxeko lanak lehenbailehen egitea komeni zaio. Gura lukeena baino gertuago du jaitsiera postua, puntu bira baino ez. Beraz, zapatuan Derioren zelaian jokatu duen partiduan hiru puntuak batzea eta jaitsiera apur bat urrunago uztea izango du helburu.

Ez da partidu erraza izango, Derio hamar puntu gorago dago eta. Gainera, Durangoko Kulturalak etxetik kanpora jokaturiko partiduetatik bakarria irabazi du orain arte. Behintzat, Derio bera ere ez dabil ondo etxeko partiduetan: irabazi beste partidu galdu ditu, lau.

Durangoko Kulturala sailkapenaren erditik behera dabil denboraldiko zatirik handienean. Boladarik txarreana izako azaroan izan zuen, lau porrot kateatuta bata bestearen atzetik. Egia esanda, aurkaririk gehienak mailako



Durangoko Kulturalaren hamaikakoa, Santurtziren kontrako partiduan. LUIS ITURRIOZ

talderik indartsuenetarikoak ziren: Portugalete, Eibar C eta Deusto. Ondoren, erreakzio txiki bat heldu zen eta partidu bi irabazi zituen segidan. Azpimarratzekoa da une honetan bosgarren sailkatuta dagoen Are-

txabaletaren kontrako garaipena. Beste partiduan 6-0 jipoiu zuen Gasteizko San Viator azken sailkatua. Harrezkero jokaturiko sei partiduetatik bakarria irabazi du eta bolada txar horrek gerturatu du jaitsiera postuetara.

Alpino Tabirak mendiko eski ikastaroa emango du

MENDIA Alpino Tabiraren ikastaroa Belagua inguruan izango da, otsailaren 22an eta 23an

J.D. DURANGO

Alpino Tabirako mendi klubak hainbat ekintza antolatu du datozen astei begira. Esaterako, mendi taldeko bazkide batzuen ekimenez, hastapeneko mendiko eski ikastaroa emango dute otsailaren 22ko eta 23ko asteburuan, Belagua inguruan. Izen ematea otsailaren 13an hasiko dute. Parte hartzeko ezinbestekoa da mendian federatuta egotea, ohar batean zehaztu dutenez. Klubeko bazkide direnek Alpinon bertan alokata dezakete materiala.

Datozen asteetako ekintzekin jarraituta, otsailaren 16an Okomendia (1.258 metro) mendira joango dira; hilaren 19an, 19:00etan, udara begira antolatuturiko ekintzak aurkeztuko dituzte Alpinoren lokalean; 23an txitxiburduntzi eguna ospatuko dute, eta martxoaren 2rako Trebiño inguruko sagardotegirako irteera antolatu dute.

Martxan da Garaiko duatloirako izen ematea

DUATLOIA Erreleboen taldekako duatloia otsailaren 16an izango da. Izen ematea hasita dago

J.D. GARAI

Garaiko taldekako duatloiak laugarren aldia egingo du otsailaren 16an, Garaiko Triatloi Taldeak eta Euskadiko Triatloi Federazioak antolatuta. Aurten Euskadiko txapelketa egongo da jokoan. Duatloi opena ere izango da, hau da, federatu bakoek ere parte hartu dezakete, hiru kategoriatan: mutiletan, nesketan eta talde mistoan. Izen ematea dagoeneko martxan da, eta triatloi.org webgunearen bitartez egin daiteke. Iazko aldian 19 taldek parte hartu zuten eta euretariko batzuk eskualdekoak izan ziren.



Iazko duatloiko irudia.



JOKALDIA

AITOR ARABIOURRUTIA OBREGÓN TRINKETA

Kantitatea ala kalitatea?

Kantitatea ala kalitatea. Batzuek bata nahi izaten dute, beste batzuek, ordea, bestea. Trinketari dagokionez, eta Bizkaiko eremua kontuan hartuta, kantitatea urria izanik pilotariak beraien kalitatea trebatzeko aukerak murriztuta ikusten dituzte. Beraz, kantitate falta nabaria dela esan dezakegu.

Oiloaren eta arrautzaren dema bezala, kantitatearen eta kalitatearen artean ere badago buruhaustea jakiteko zein datorren bata bestearen aurretik. Nire uste apalean, kantitateak kalitatea areagotzen du, estatistika kontu batengatik bada ere soilik. Hala ere, kantitatea ez dugu arazo bakarria, kantitate txiki honi egiten zaion erabilpena baizik.

Bizkaian, Abadiñoko Tornosolo trinketaz gain, Bilboko Miribilla trinketa, Lekeitiokoa eta Fadurakoa ditugu. Hauetatik, diferentzia nabarmenez, Tornosolokoa da gehien ustiatzen eta erabiltzen den trinketa: eskuz, palaz, eskolak, asteburuetak partiduak... batez ere,

"BILBOKO MIRIBILLA TRINKETA GEHIAGO APROBETXATU DAITEKEEN SENTSazioA DUT"

"BERE ERABILERA OSO MUGATUA DELA DERITZOT, BERE ARDURADUN ETA USTIATZEN DUTENEN INTERES FALTAGATIK"

Tornosolo pilota taldearen lanagatik eta Mankomunitateak emandako erreztasunengatik.

Hala ere, Tornosoloren exenpluaren beste aldean, Bilboko Miribilla Trinketa dugu. Nire iritziz, Hego Euskal Herrian dugun Trinketik onena eta politena aspektu guztiak kontuan hartuta, eta honexegatik, bere erabilera oso mugatua dela deritzot, bertako arduradunen eta berau ustiatzen dihardutenen interes faltagatik gehien bat. Askotan betetzen zaigu ahoa gure kirolez, kulturaz eta abarrez, baina instituzio batzuen partetik ez da interes hau praktikara eramaten, eta Bilboko Miribilla Trinketa gehiago aprobetxatu daitekeen sentsazioa dut, pilotarion intereserako batez ere.

2030ean Bilbon jokatu den Munduko Euskal Pilota txapelketan, Miribillako Trinketa izango da modalitate honen egoitza, espero dezagun ordurako Euskal Selezioaren aitzakiarekin guretik hain hurbil dugun instalakuntza gehiago aprobetxatzea.



100 bat txirrindularik parte hartu zuten Iurretako bizikleta martxan. ARGAZKIAK: @berru1966

Basatzanen 1.150 euro batu dituzte Angelman elkartearentzat

Joan zen zapatuko eguraldi iragarpena eskasa izan arren, goizean ateri eutsi zion eta horrek izen emate aurreikuspenei eusten lagundu zuen. Guztira, ehun bat lagunek egin zuten Oiz mendiaren bueltan diseinaturiko ibilbidea

Joseba Derteano IURRETA

Joan zen zapatuan, Basatzan mendi bizikleta martxa egin zuten Iurretan, Zaldai mendi taldeak antolatuta. Guztira, ehun bat lagunek parte hartu zuten eta izen emateagaz bateriko dirua Angelman Durangaldea elkarteari eman zioten. Guztira, 1.150 euro batu zituzten elkartearen alde.

Emaitzagaz "pozik"

Antolatzaileak "oso pozik" daude mendi martxak izandako harreragaz. Eguraldi eskasa iragarrita zegoen arren, goizean zehar ez zuen euririk egin eta horri eskerrak gehiagok eman zuten izena. "Ateri egin zuenez, aurretik izena emandako 50 lagunak etorri egin ziren, eta, gainera, beste 50ek eman zuten izena egunean bertan", nabarmendu du Erlantz Zaldunbide

Zaldai mendi taldeko ardura-dunak. Martxako 28 kilometroetan Oiz mendiaren magaletik ibili ziren ziklistak. Basatzan mendi bizikleta martxa Zaldairen 8. Mendi Asteko parte izan da.

GALLANDARA IGOERA BERTAN BEHERA UTZI BEHAR IZAN ZUTEN, EGURALDI TXARRAGAITIK

BERBALDIK ETA MENDI ERRONKA 2024 SARI BANAKETA EGIN DITUZTE AZKEN EGUNOTAN IURRETAN

Basatzan bizikleta martxa egiteko moduan egon baziren ere, arratsalderako programatuta zegoen Gallandara igoera bertan behera utzi behar izan zuten. Frontalagaz mendi horren tontorrera igotzea zen Zaldaikoen asmoa. Umeekin egiteko moduko ibilaldia prestatu zuten. Txikienek ibilbide erdian Lukuarrietatik hasita bidea egitea pentsatuta zuten. Baina eguerditik aurrera eguraldiak hartu zuen itxura kontuan hartuta, bertan behera utzi behar izan zuten.

Horrela eman zioten amaiera hainbat egunetako egitarauari. Besteak beste, berbaldiak eta Mendi erronka 2024 sari banaketa egin dituzte azken egunotan Iurretan. Hitzaldietan, hainbat protagonistagaz Karakorum, Pirinioak eta Hiru Haundiak ezagutzeko aukera eskaini dute.





GUARDIAKO BOTIKAK

URTARRILAK 31, BARIKUA

09:00-09:00

Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**UTSAILAK 1, ZAPATUA**

09:00-09:00

Mugica, Andra Maria 9 - Durango
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**UTSAILAK 2, DOMEKA**

09:00-09:00

Irigoi, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

UTSAILAK 3, ASTELEHENA

09:00-09:00

Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**UTSAILAK 4, MARTITZENA**

09:00-09:00

Irigoi, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**UTSAILAK 5, EGUAZTENA**

09:00-09:00

Sarria, Sasikoa 17 - Durango
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

UTSAILAK 6, EGUENA

09:00-09:00

Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ZORION AGURRAK

**Gari**

Gure etxeko mutil handiak urteak egiten ditu. Askok maite zaitugu. Zorionak!

**Elene Loroño Bizkarra**

Urtarrilak 27. Zorionak, Elene, familia guztiaren partez. Jarraitu horren jatorria izaten. Askok maite zaitugu.

**June**

Zorionak, politorri! Primeran pasatu zure 9. urtebetetzean. Patxo erraldoiak familiako guztien partez; askok maite zaitugu.



GOZATU GOZATEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
☎ 661 40 14 00
f Gozatu Gozategia
@ gozaturgozategia

Urte askotarako!

Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean **GOZATU gozategiko tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrarekin batera.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta *Anboto.org/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa


Mezua bidali *zorionagurrak@anboto.org* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguneta eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak

Etorri zaitez Anbotoren ordezkari zara edo deitu 946 232 523 telefonora.

EGURALDIAREN IRAGARPENA

EUSKAL HERRIA




BULEGORAKO ZIGILUAK FOTOLITOAK

Betikoak flexografia

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

REINER
EUSKAL EK

BERRIZKO AGENDA KULTURALA



ZEPO ZAPO - Markeliñe
HEISENBERG - Tanitaka
Azerik eta Errik basoa salbatzen dute - Zinema

Otsailak 7, 17:00
Otsailak 15, 19:00
Otsailak 16, 17:00

berrik
2025

INMOBILIARIAK



MATIENA Guztiz berriztatua. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela.



DURANGO Atikoa. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Guztiz berriztatua. Bizitzeko sartzeko moduan.



ARKOTZA 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Garajea eta ganbara.



SAN INAZIO 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. TERRAZA. Garajea eta ganbara.



BARRENKALE Berriztatuko. 4 logela eta komuna. Ganbara.



ETXEBIZITZAK SALGAI DURANGO

Askatasun etorbidea: 2 logela, 2 komun eta sukalde-egongela. Terraza handia. Garajea eta ganbara.

Pinondo: Logela biko atiko ederra. Sukaldea eta komuna. 50 m²-ko lokalarekin batera salgai.

Barrenkalea: Logela bateko apartamentua. Sukaldea, egongela, eta komuna. Trastelekua.

Tabira: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Oso argitsua.

BERRIZ

Berriz: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta tra stelekua.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO

Atxondo: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

LURSAILAK SALGAI

Tabira: 1.445 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Laua.

Iurreta: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

Abadiño: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatuko. Lursailarekin. Ganbara.

Berriz: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatuko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

Berriz: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatuko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

Atxondo: Axpe. Baserri ederra salgai. Berriztatuko. Kokapen izugarria

Mañaria: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

Mendata: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatuko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

BULEGOAK ALOKAIKURUAN ABADINO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

LOKALAK ALOKAIKURUAN


Alde Zaharrea, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

Matiena: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.



DURANGO Juan Antonio Abasolo: 95, 25 m². Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Egoera onean. Etxe erdiak kanpora ematen du (ekialde- mendebalde) Argitsua. Leku onean kokatua zonalde berdez eta zerbitzugunez inguratuta. 14 m²-ko ganbara. Jantzia.



DURANGO Askatasun Etorbidea: (1.991. urtean eraikia): 88 m². Halla, egongela, sukaldea, despentsa, 3 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde- iparralde) Argitsua. Zonalde berdez inguratuta eta zerbitzuguneak gertu. Herriko sarrera/ irteeratik gertu. Egoera onean. Ganbara eta garajea. Bigarren garajea erosteko aukerarekin + 20.000 €.



DURANGO Muruetatorre: 115 m². Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Egoera onean baina berrikuntzaren bat behar du. Etxe osoak kanpora ematen du. (ekialde-hegoaldea) Leku onean kokatua, zonalde berdez eta zerbitzugunez inguratuta. Garajea eta trastelekua.



DURANGO Tabira: 2.008. urtean eraikia) Halla, egongela, sukalde jantzia, eskegitokia, 3 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar- mendebalde) Argitsua eta ikuspegiekin. Leku onean kokatua, zonalde berdez eta zerbitzugunez inguratuta. Herriko sarrera/irteeratik gertu. Garajera sarbidea igogailutik eta 8 m²-ko trastelekua. Jantzia.



LURRETA: Zubiaurre: 66,43 m². Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, despentsa eta komuna. Egoera onean. Pisu altua. Argitsua. Etxe erdiak kanpora ematen du. (hegoaldea) Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. Banaketa berri bat egiteko aukerarekin. ITE-a pasatutakoa.



BERRIAK ATXONDO

Konpontzeko baserria lursailarekin. 300.000 €.

DURANGO

Ambrosio Meabe: 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Ganbara. Igogailua eta garaje itxia. 265.000 € / E.E.Z.= E

Askatasun Etorbidea: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. LEHEN 320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z.=E

Barrenkalea: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatuko. LEHEN 150.000 € / ORAIN 138.000 € / E.E.Z.=G

Barrenkalea: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. 350.000 € / E.E.Z.=F

Bartolome Ertziila kalea: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Ganbara. Lehen 170.000 € - Orain 159.000 € / E.E.Z.=E

Frantzisko Ibarra: 4 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta 2 komun. Balkoia. igogailua. 335.000 €/ E.E.Z.=E

Juan de Olazaran: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. 385.000 € / E.E.Z.=B

Komentu kalea: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. Ganbara. 187.000 € / E.E.Z.=E

Santikurutx Kalea: Etxebizitza bifamiliarra eraikitako 600 m²-ko lurzorua. LEHEN 550.000 € / ORAIN 495.000 €

ABADINO

Dendarikoa: Zaharbertzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. 215.000 € .

Eskolakoa: Duplexa. 3 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. 325.000 € / E.E.Z.=G

Txanporta plaza: Eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. 253.000 € / E.E.Z.=Bidean

BERRIZ

Murgoitio auzoa: Berreraikitako baserria lurzorugaz. LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €

Eitua: Berreraikitako baserria lursailarekin. 350.000 €

GARAI

Momoitio auzoa: Etxebizitza eraikitako lursailak. Aukera ezberdinak.

LURRETA

Bixente Kapanaga: Zaharbertzeko etxebizitza. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 95.000 € / E.E.Z.=F

IZURITZA

Elizalde auzoa: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. LEHEN 620.000 € ORAIN 570.000 € / E.E.Z.=E

GARAJEAK SALGAI/ALOKATZEKO

Durango eta lurretan, aukera desberdinak.

LOKALAK SALGAI/ ALOKAGAI

Informazio gehiago bulegoan.



LAU-HORTZA

MARKEL
SANCHEZ ZELAIA

Gezuraren alde

1937ko maiatzaren 26an, gerra zibil betean, Errose Bustintzak kronika historikoa idatzi zuen Eguna egunkarian. Kronikak Zumalakarregi generalaren azken egunak kontatzen zituen, zauriturik hil zenekoak. Azaltzen zuen zelan, hil ostean, kide batek bi-botearen txatal bat kendu zion hilotzari, eta metalezko kutxa batean gorde, ile kiribil puntatxo hark karlistei borrokarako adorea emango zielakoan liderra galdu eta gero. Kronikak ehun urteko saltoa egin eta bibotearen hondar hura 1937ko Bilbon zegoela esaten zuen, etxe batean gordeta, eta, modu hartan, Zumalakarregi Bilbon zegoela gudariek.

Errosek idatzitakoa, baina, ez zen inoiz gertatu. Zumalakarregi ez zioten ez bibote txatalik kendu ez Bilbora eraman. Erabilitako izen eta iturri historikoek, oster, sinesgarrtasuna ematen zioten kontakizunari. Askok usaindu zuten gezurra, eta ulertu zuten helburua. Beste askok gogotsu sinistu zuten.

Orain, gezurraren aroan sartu garelara diote. Gezurra esatea ez ei dago ondo, baina kutxa batean dagoen bibote zatiak eman dezakeen adorea ere gezurra da, azken batean. Kontua da gezurrak zein helburu duen, nahasgarria den ala laguntzen duen zerbait ulertarazten.

Gezurrak badaukalako balio etiko eta estetiko bat, agian horrela defendatu daitekeena soilik: gezur batekin.

AKUILUA

"Masterchef saiora gonbidatu izan naute"

ESTANIS OCHOA GIL SUKALDARITZA ZALEA

Estanis Ochoak (Zaldibar, 1972) kozinatzeko errezetak sareratzen ditu Instagram eta Tik-Tok bitartez. Sukaldaritza zale amorratua dela dio, baina inolaz ere ez sukaldaria

Aitziber Basauri ZALDIBAR

Estanis Ochoari umetatik dator koinatzeko zaletasuna. Etxean ikasi du sutegi eta kazola artean moldatzen, eta oso ondo pasatzen duela aitortu du. Erosketa saileko langilea da enpresa batean (@estanischoa).

10 urte joan dira Instagramen lehenengo errezeta sareratu zenuela. Zelan hasi zinen?

Amari eta amamari galdetutako errezetak idazteko eta gordetzeko hasi nintzen, besterik ez. Lehenengo Tumbler-en, eta gero Instagramen. Errezetak eta argazkiak mugikorrean gordetzea erosoagoa iruditzen zitzaidan, kuaderno batean barik. Ba, apurka jarraitzaileak batzen joan nintzen. Niretzat egindako zeozer zen, ez nintzen konturatu hainbeste zabaldu zitekeela. Pandemia booma izan zen.

Jarraitzaile asko batu zenuen?

Bai, nahiz eta ordurako banituen 20.000 jarraitzaile inguru. Instagram bidez ezagututako Madrilko lagun bat eta biok etxean zuzenekoak egiten hasi ginen. Geroago, kozinatzen zuten beste batzuk ere batu ziren, eta 8-10 laguneko taldea osatu genuen. Beste profil bat zabaldu genuen denon artean errezetak egiteko,



"DIBERTSIO HUTSAGAITIK HASI NINTZEN, ETA HORRELAXE JARRAITU GURA DUT"

eta gure profil propioan ez ezik beste horretan ere egiten genituen zuzenekoak. Jarraitzaile kopurua asko igo zen orduan, eta bistaratzeko mordera izaten genuen. Bideo batzuk biralak bihurtu dira. Instagramen 40.000 jarraitzaile dituzu. Itxaroten zenuen halakorik?

Ezta pentsatu ere! Gainera, nik 400 bat pertsona jarraituko ditut. Inondik inora ez nuen pentsatu ogibidea hemendik ateratzea. Dibertsio hutsagaitik hasi nintzen, eta horrelaxe jarraitu gura dut. Dena dela, sare sozialak asko aldatu dira, profesionalizatu egin dira. Denbora eta lan gehiago eskatzen dute, eta ez dut maila horretan aritzeko gogorik. Egia da lan eginda lortu daitekeela bizimodua hortik ateratzea, ez hainbeste sareek emandako diruagaitik, hortik kanpora sorturiko ekitaldi edo jardunaldienagaitik baino.

Ekitaldi askotara gonbidatu zaituzte?

Bai. Pandemia aurretik, Eltziegoko landa-etxe batean zeuden estatubatuar batzuentzat kozinatzeo ipini ziren nigaz kontaktuan AEBetatik. Iberiko-ohola eta patata tortilla prestatu nien, eta txundituta geratu ziren. Eurak ere ahalegindu ziren patata tortilla egiten. Beste behin, Masterchef saioko ekitaldi batera gonbidatu ninduten, ikusle lez. Argazki batzuk zabaldu eta story pare bat egiteagaitik ordaindu zidaten. Masterchef lehiaketan parte hartzeko castingera ere gonbidatu naute, baina ez naiz inoiz animatu.

Non dago zure arrakastaren gakoa?

Etxean ditugun osagaiekin egin daitezkeen errezeta errazak eskaintzea, benetakoak. Arrakastarik gehien errezetarik errazenek dute. Askotan harrিতa geratu naiz. Sareek jende asko ezagutu eta lagunak egiteko aukera eman didate. Horixe izan da ekarpenik handiena. Ikastaroak emateko eta Santander Food-en kozinatzeo bidea ere zabaldu didate.

Inoiz ez diozu ezetz esango...

Arrautza eta patata frijituei.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea



NOR BILATZEN DUGU
60 urtetik gorako euskaldunak
Ama hizkuntza euskara edo gaztelania.
Ordubeteko 2 edo 4 saio
Bakarkako saioak.

ZER EGITEKO
Elkarrizketa;
frega kognitibo batzuk
eta hizkuntza ariketa errazak.
20 € saria

NON
Durango.
Laubideta 6
Inbaurrondo
atzealdeko
oktogonoa.

EMAN IZENA



ANIMATU GERTUKOAK!

ZELAN ALDATZEN DA GURE HIZKUNTZA ZAHARTZEN GOAZELA?

📞 945 013 159 · gogo.elebiduna@ehu.eus







